

# GUaiXE.net



**Pintura lehiaketa**  
azkarra igandean  
Olatzagutian



Kultura >> 14

**San Adrianek** bihartik aurrera **hiru eguneko festa** ekarriko du **Lizarragara** eta igandean **erromeria** **Etxarri Aranatzera**



Sakanerria >> 9



>> 5

**Lakuntzan**  
parkea  
egiteko  
egitaraua

>> 9

**Diru laguntzak**  
eta baimenak  
emateko  
hizkuntza  
irizpideak  
onartu dituzte

>> 5

## Lazarokoak martxan

**Gobernuak 8 lan egiteko 2,4 milioi euroko laguntza eman du**

>> 5

**Enplegu tailerrean 15 langabe trebatu dira**

>> 6



>> 7

**Desegitea geldituta, konponbidea orain**



**Kultura Arbizuren suntsipenaren memoria oroitzeko**

>> 15



ANA VILCHES

**Aralar Beriain mendi bizikleta proba berria igandean**

>> 11



**Kedada, ekintzaile eta arituendako topalekua**

>> 3



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu  
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Amaya Crespo**  
Amaia, txapelduna,  
beti gazte!!  
ZORIONAK X 2!!



**ZORIONAK TXAPELDUNAK!**  
Nanclareseko Futbol 7 txapelketan txapeldunor-deak izan zarete. Esker mila hain egun hunkigarria eskaintzeagatik!! Hoberenak zarete!!



**ZORIONAK TXAPELDUNAK!**  
Nanclareseko Futbol 7 txapelketan txapeldunor-deak izan zarete. Esker mila hain egun hunkigarria eskaintzeagatik!! Hoberenak zarete!!



**Miren Murua Ugalde**  
ZORIONAK gure etxeko printzesari, famili guztiaren partetik. Irribartsu jarrai.



**Janitz Mundiñano Zabala**  
1, 2 eta... 3! Hiru urte beteko ttu Janitzek hel-du den astizkenien! Muxu haundi-haundi bana etxekuen partes.



**Alain**  
ZORIONAK GUAPISIMO  
zure 11. urtebetetzean familiaren partez.

## garagarriak

# 14-20

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Musika

**Leitzaran ensemble.** Garagarriaren 14an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako Sorginak tabernan.

**Liquido Queen trio.** Garagarriaren 14an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Sutegi parkean.

**Herri kontzertuak eta Dj Sergei.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 17:30etik aurrera Lakuntzako plazan.

**Ikasturte akaberako kontzertua.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Kaos Urbano+Schock Waves.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Gaztetxean.

**Ikasturte akaberako kontzertua.** Garagarriaren 19an, asteazkenean, 18:00etan Lakuntzako plazan. **San Saastin musika eskolako ikasleak.**

**Ikasturte akaberako kontzertua.** Garagarriaren 20an, ostegunean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

### Dantza

**Saltoka, dantza-pikoa.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 18:00etan Hiriberriko plazan.

### Ikasturte akaberako emanaldia.

Garagarriaren 15ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur etxean.

### Antzerkia

**Denboraren makina.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. **Andra Mari ikastolako DBHko 1. maila.**

### Zirkoa

**Txantreako gazteen zirkorakustaldia.** Garagarriaren 18an, asteartean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

### Mendi irteera

**Altsasu, Olatzagutia, Codes.** Garagarriaren 15ean, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak.

### Txirrindulari irteerak

**Lokiz mendizerra-Lana ibarra.** Garagarriaren 15ean, domekan, 8:00etan Altsasuko Burunda txirrindulari taldearen mendi bizikletako en egoitzatik. 49 km.

### Erakusketak

Altsasuko peñak 1950-2012.

Garagarriaren 14tik 16ra Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

### Pintura ikasturako lanak.

Garagarriaren 15ean, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta garagarriaren 16an, domekan, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

### Itziar Nazabal arte eskola.

Garagarriaren 16ra arte Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Hitzaldiak

**Goi tentsioko linea.** Garagarriaren 14an, ostiralean, 19:30ean Hiriberri eta 21:30ean Ihabarren.

### Krisi kapitalistaren diseinua eta modelo berriaren beharra.

Garagarriaren 14an, ostiralean, 19:00etan Bakaikuko elkartearen. **Hizlaria: Nekane Jurado.**

**Gure esku dago.** Garagarriaren 20an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

### Bestelakoak

**Alde Hemendik eguna.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 10:00etatik aurrera Altsasun.

**Parkea Martxan eguna.**



Bestelako dantzaldia egongo da Hiriberri.

Garagarriaren 15ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Lakuntzan.

**Independentzia eguna.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Iturmendin.

**Pintura azkarreko lehiaketa.** Garagarriaren 16an, igandean, 9:00etatik aurrera Olatzagutian.

**Ez da moteltzeko garaia, Kedada da irtenbidea...** Garagarriaren 19an, asteazkenean, 9:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Cederna-Garalur**

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutako Plataforma.** Garagarriaren 14an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Altsasuko peñen asanblada.** Garagarriaren 14an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

### Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garagarriaren 14an, ostiralean, 20:00etan Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Goi tentsioko lineari buruzko herri galdeketa.** Garagarriaren 15ean eta 16an, larunbatean eta igandean, 19:00ak arte Urritzola, Errotz, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri eta Ihabarko elkarretetan. **Autopista Elektrikorik Ez.**

**Alde hemendik, utzi bakean Euskal Herria.** Garagarriaren 15ean, larunbatean, 19:00etan Altsasun.

### Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garagarriaren 16an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Garagarriaren 17an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

107.3 FM  
**beleixe** online  
edo uhinbak aplikazioaren bitartez [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, errausketa, Sakaranga txaranga...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

*Piztu irratia!*



## SAKANA



Ekintzaileak eta enpresetako ordezkariak biltzeko deialdia egin du Cederna-Garalurrek.

# Kedada da irtenbidea

**Asteazkenean, 9:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean dute hitzordua ekintzaileak eta negozioa finkatu nahi dutenek**

Zertarako irtenbidea? Krisi garaian ez moteltzeko eta aurrera egiteko. Cederna-Garalurrek antolatu du Kedada, ekintzailendako eta finkatutako enpresendako topaleku bat izan nahi du. Garalurreko zuzendari gerente Isabel Elizalde Arretxeak Beleixe Irratian (FM 107,3) azaldu zuenez, joan den urte akaberan Lesakan egin zuten aurrenekoa eta 70 pertsonak

parte hartu zuten. “Oso interesgarria izan zen. Oso dinamika berezia sortu zuen. Ideiak eta lan egiteko beste modu bat sortu ziren”. Sakanan egiteko eskaera jaso zuen Elizalde eta asteazkenearako jarri dute hitzordua.

Kedadak bi zati izanen ditu. Aurrenekoan haien esperientziaren berri emanen dute hainbat hizlarik. Ondoren, hiru lantalde sortuko dira eta entrenatzaile edo gidari baten laguntzaz bildutako iritziak partekatuko dituz-

## Harremanetarako

Susana Mendinueta, Cederna Garalurreko Sakanako Garapen Agentea: 948 567010 edo 639 900 336 telefonoak.

te. Cederna-Garalurrek dei egin die negozioa martxan jarri berri duten nahiz beren negozioa finkatze bidean duten ekintzaileei Kedadan parte hartzera. Izan ere, jardunaldi horretan enpresak eta

## Egitaraua

**9:30etik 11:00etara OSOKO BILKURRA.**

**9:30etik 9:45era Jardunaldiaren hasiera ekitaldia.**

Altsasuko udalaren ordezkaria, eta Goierri (Goieki), Bidasoa (Bidasoa Bizirik) eta Nafarroako Mendialdea (Cederna Garalur) eskualdeetako garapen-agentzietako ordezkariak.

**9:45etik 10:15era Porrot egiteko beldurra. Beldurra eragiten duen egoera.**

Uxue Ibarrola, Assentire Consulting eta Cederna Garalur Elkarteko garapenerako eragileak.

**10:15etik 11:00etara AIREAREN UNEA, gure neuronak oxigenatzen.**

Brikotaining, brikolajeari zukua ateratzen.

Jaime Augusto, Brikoyimi.

**Pertsonarik gabeko proiektuak ez du zentzurik: Pertsonengan uste osoa izan, proiektu berriak sortu.**

Jon Angulo, Hidrorubber.

**Beste aliantza batzuk eratzten.**

Aintzane Garziandia, Mugaipae aisialdia.

**Ekonomia-proiektuak sortzen, Sakantzen gizarte-mugimendutik.**

Jon Etxeberria, Sakantzen Sarea.

**15” Solasaldia eta aurkezpena:**

sormenezko termometroa.

**11:00etatik 14:30era AZALPENETARRAKO, HAUSNARKETARRAKO ETA EZTABAIDARRAKO TAILERRAK**

**11:00etatik 12:30era LURRAREN UNEA, gure asmoen sustraia botatzen.**

**1. tailerra: mugez haraindi: Enpresa-ekimena eta nazioartekotzea.**

Entrenatzaileak: Iñaki Puncel / Ana Cañada, Nafarroako Ganbera

**2. tailerra: bestela pentsatu, zerbait berria sortu: sormena, enpresa-ekimenerako iturria.**

Entrenatzaileak: Alfredo Chourraut, ANEL, Nafarroako Lan Enpresen Elkarte

**3. tailerra: zorieko kritikariak: nola garatu proiektu bat krisi-garaian.**

Entrenatzaileak: Mikel Belaskoain, Dooarts

**12:30etik 14:00etara URAREN UNEA, gure proiektuak ureztatzen eta gure sareak ugaltzen.**

Osoko bilera eta parte hartzen duten pertsona guztien arteko lankidetzatailerra.

**12:30etik 14:30era SUAREN UNEA, sutan erretzen eta tenperatura hartzen.**

Osoko bilera eta motibazio-tailerra.

**14:30ean KEDADA EKINTZAILEA jardunaldiaren akabera-ekitaldia.**

ekintzaileak edo finkatzen ari diren enpresen harremanetarako espazio komun bat izanen da, “soluzioak eta ideiak bilatzeko baliagarriak izanen diren espe-

rienteziak eta ikuspuntuak trukatzeko”. Azken finean, krisi garaian jarrera pasiboak alde batera utzi eta martxan jartzeko bultzada izan nahi du.

# Lan bila zabilta?

**Eman izena Sakanako Mankomunitateko**

**kirol monitore euskaldunen edo aurkezle euskaldunen lan-poltsan!**

## KIROLA EUSKARAZ

### Baldintzak:

18 urte beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarriko kirol titulazioa izatea.

### Izen-ematea:

Uztailaren 15erako Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan edo [www.sakana-mank.com](http://www.sakana-mank.com) orrian.

### Erabilzaileak:

Begirale euskaldunen eta aurkezleen zerrendak Sakanako udalek eta Mankomunitateak zein entitate pribatuek erabili ditzakete. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua bitartekaria izanen da. Ez da lan-harremarik sortuko Sakanako Mankomunitatearen eta zerrendako kideen artean.

**Mank**  
s a k a n a

Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua





Eduardo Galan

# Irakurtze tailerra

“Logikak, A puntutik B puntura eramango zaitu, imajinazioak berriz, nahi duzun tokira” zioen Albert Einsteinek. Gero eta imajinazioz beteriko ekintza gehiago antolatzen hasiak dira gure artean, azkenaldi honetan, agertzen zaizkigun arazoei aurre egiteko. Adibide gisa eta benetan harritu egin ninduen honako hau izan da. Malabar, gozogintza edota makrame taileraz aparte beste tailer motak antolatzen hasi dira. Duela aste

bat jakin izan nuen Sakanako Hipotekengatik Kaltetutako Pertsonen Plataformak (PAHS) hipoteken eskriturak irakurtzeko tailerra antolatu egin zutela Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Benetan tailer bitxia, baina guztiz beharrezkoa guztiondako, batez ere, eskritura horietan Notario Jaunaren aurrean gure sinadura botatzearen ondorioz, era batean edo bestean, gure bizitza osoa moldatzen baitugu, gure bizitza hipotekatuz. Datu

bat bakarrik, 2012 urtean 43.858 kaleratze egon ziren espainiar estatuan, hipoteka ez ordaintzeagatik.

Ez dakienarendako hizki eta kontzeptu ulertezinez beterik egonen dira eskritura hauek -TAE, NOMINAL, EURIBOR, DIFERENCIAL, INTERES DE DEMORA- eta hipoteka sinatzerakoan ondo jakin egin behar da zein da beraien esanahia. Gogoratu, oraingoan, “klausula sulo” deritzona izatea edo ez lagun-

## astekoa

duzaitzake diru gutxiago ordaintzeko, beraz zure hipotekaren berrirakurketa bat egiteko momentua da. Ziurrenik, zerbait berria ikasiko duzu edo baliteke gutxiago ordaintzea.

Beraz, adi egon eta antolatzen diren tailer benetan interesgarri horietara hurbildu eta parte hartu beharko dugu, ea zerbait ikasten dugun.

**Kexak, iritziak eta iradokizunak:**  
dudugalan@hotmail.com

## barrutik kanpora

### Red Electrica Españolaren inposaketaren kontra

Deikaztelu eta Itsaso arteko 400 Kv-eko argindar linea berria eraikitzeke proiektuaren prozedura administratiboa bukatzeaz dago. Seguruena laster, hemendik gutxira, proiektua onartua eta bere exekuzioa martxan izango dugu. Horren kontra alegazioak aurkeztu ahal izateko, aste gutxi besterik ez dira falta. Hala ere, "Autopista Elektrikorik ez" plataformari esker, inposaketa horri aurre egiteko aukera dugu eta beste tresna batzuk ere gure esku daude gure erresistentzia azalarazteko.

Beste behin ere, udal autonomiaren gaintik inposatu nahi den azpiegitura dugu hau, kaltetudako inolako onurarik ez dakarrena eta eragozpenak, kalteak handiak ordea.

Horren kalteak jasan behar dituzten herri gehienetako Udaltzatuek eta Alkateek horren kontrako jarrera argia erakutsi dute. Beharrezko alegazioak aurkezteaz aparte, herritarrok gure kontrako jarrera azaltzeko aukera dugu orain, auzokideen batzarrek bultzatutako, sustatutako herri galdeketen bitartez.

Asteburu honetan, Arakilgo herri ezberdinetan egingo dira galdeketa eta datozen aste eta hilabeteetan, herritarron ahalmen honen isla Sakanako beste herrietara ere zabaltzea espero dugu.

Sustrai Erakuntzan, ingurumen eta lurraldearen kontrako erasoek kezkatzen gaituzte. Kasu gehienetan, interes ekonomiko pribatuarekin zerikusia (lotura) duten erasoak dira horiek, besteak beste, tentsio altuko argindarraren linea, hondakinen erraustegia Portlanden edo "fracking" delakoa, haustura hidraulikoaren bitartez gasa ateratzea.

Hori dela eta, interes horiek zuzenki salatu nahi dituzten taldeei eta norbanakoen erabaki ahalmena berreskuratzeko inizatiba sustatzen dutenei babesa ematen diegu.

**Sustrai Erakuntza fundazioa**

## hara zer dien

### Eta, zer moduz gizatasunaren pozimatik pixka bat hartzen badugu?

Zer da gizatasunaren pozima?

Hamaika "gaitzei" aurre egiteko sendagaia da, hala:

-Arrazakeriaren sintomen kontrako errezeta

-Jarduera xenofoboak paliatzeko prebentzio tratamendua

-Desberdintasunen kontrako borrokan indarrak berpizten dituen elikagaia

Zertan datza "Gizatasunaren pozimak"? Nola hartu behar da?

Uste baino errazagoa da hartzeko, gizaki guztiarendako gomen-datua dago, ez dauka osasunarendako kontrako ondorioz, ezta kalterik.

Alderantziz, oso ondorio baikorak ditu, bihotz-arimarendako batik bat: elkartasuna, abegikortasuna, aniztasunarekiko aitortza, errespetua, arrazakeria egorearen aurrean salaketak jartzeko ausardia, beldur eza.....

Gainera, norberak har dezake. Ez da gaizki sentitzera itxoin behar, eta ez du inolako sendagileren errezetarik behar.

Norberak edonon dagoelarik ere har dezake, sortu eta bere pozima berexia, bere neurrian, sortu eta har dezake.

Gizatasuna "pozimaren" osagaiak:

-Norberak berarekiko ezberdina den pertsona batekin topo egiten duenean, sabelaldean gertatzen zaionaz, topaketa horrek sortzen dizkion emozioez jabetzea, ohartzeta.

-Mundu honetan gizaki orok bizitzeko eskubide berdina dautzagula gogoratzea eta aldarrikatzea, izan ere, gizaki asko baitago eskubide horretara arrazoi askorengatik iritsi ezin dena.

-Gure aldamenekoa, gu bezalako gizaki bezala ikustea eta onartzea: eskubide eta betebeharrak berdineko gizakia; eta eskubide horien benetako berdintasuna

aldarrikatzea

-Aniztasunari (bere zentzu zaballean) bihotzeko ateak benetan irekitzea.

"Pozima" hartzeko modua:

Osagaia denak gurekin ditugunean, benetan gure izatean barneratu ditugunean, ezer baino lehen gizakiak PERTSONA moduan hartuko dituen munduaren parte aktiboa izateko gai sentitzen garenean, orduan izango da "pozima" hau zurrutaka edota bat-batean hartzeko unea eta garaia.

Dosiak zenbatetan eta nola hartu, bakoitzaren bihotzaren begiek adieraziko diote.

Ez duzu/e inolako zalantzarik izanen momentu hori iristen zaiuzenean

Beraz, eta inolako beldurrik gabe, Bejoin dizuela.

**Bego Zestau**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

### Bildu Altsasuri erantzuna

Arturo Carreño Parras, Iuko Altsasuko zinegotzia

Bilduren azken INFORMATZEN-en zabalduetako asmakerien eta faltsukerien aurrean, IUtik lau gauza gezurtatu nahi ditugu: 1. Legegintzaldi hasieran Bilduk Ogasun Presidentzia eskaini zidan, baina soilik eguneroko sinadura emateko eta gutxi gehiago. Bistan denez,

duintasunagatik ez nuen haien eskaintza eskuzabala onartu. 2. Ogasunari uko egitean, Ogasun Kontseiluaren Presiditza eskaini zidaten eta onartu eta eratzeko lan egin ondoren, erditik kendu ninduten eta Olaztik Bilduko zinegotzi bati eman zioten botoa. 3. Guztiz faltsua eta bidegabea da Batzordeetara entzule huts gisa noala esatea. Hainbat proposamen egin ditugu eta ez dituzte kontuan izan, adibidez: kanpotarrei ond-

doak hartzeagatik tasa jartzea, Dantzalekuko aparkalekuendako tasa edo prezio publikoak jartzea udan eta kanpotarrendako, txabiskeen ordenantza egokitzeta kontrol gabeko zabalkunde eragozteko. 4. Ostiral arratsaldeetan batzordeak ez egiteari buruz, ez da soilik IUren kontua, gainontzeko taldeena ere; quorumik ez delako izan eta bertan behera gelditu behar izan dutelako.

Azkenik, tristea da esatea 7 tal-

de politikoko dituen udal batean Bilduko 4ak lan guztia euren dako egozte, batzordeak eta Gobernu Batzordea beharrezkoak direnean, eta oposizioa, leku guztietan bezala, aritu behar duenean; bakarrik Aralarko zinegotzia aipatzea falta izan zaie, preseski batzordeetara eta Tokiko Gobernu Batzordera gehien huts egiten duenetako bat, baina hori beste kontu bat da. Ba hori, dirdira egiten duen guztia ez da urrea eta kontuak garbi.

## Guaixe

**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net  
**GUAIXE:** Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net  
**PUBLIZITATEA:** Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

**Erredakzio burua:** Alfredo Alvaro Igoa  
**Erredakzioa:** Maider Betelu Ganboa  
**Maketazioa:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**Laguntzaileak:** Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso  
**Zuzentzailea:** Garazi Garzia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200 ale

### LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

**UNIBERTSITATERANTZ:**

Herenegun jakinarazi ziren selektibitateko emaitzak. Aralarko Mikel Donea institutuan ikasi duten ikasleei dagokienez, Dere-

duko 41 ikasleetatik 40k gainditu dute proba (%97,5) eta A erudian ikasitako bostek ere (%100). Nafarroan %95,16k gainditu du.

# sakanerria >>

**SAKANA**

## Diru laguntzak eta baimenak emateko hizkuntza irizpideak onartu dituzte hainbat herritan

Sakanan egiten diren haur eta helduen kirol jarduerak euskalduntzen joateko, epe motz eta ertainerako, Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Kirol Zerbitzuek Kirola euskaraz programa martxan jarri dute. Bere helburua sakandar euskaldunak kirola euskaraz praktikatzeko posible egitea da. Horrekin batera, kirol jardueretan euskaren presentzia bermatzea ere.

Horretarako, behar-beharrezkoak dira bai begirale bai aurkezle euskaldunak. Mank-ek badu lan poltsa bat eta harri bultzada eman nahidio, udalendako eta kirol elkar-teendako begirale eta aurkezle eus-

kaldunak lortzea errazagoa izan dadin. Bestalde, udalek hizkuntza kontuan hartuko dute herrietako elkartei laguntzak ematerakoan.

**Baldintzak**

Udaletatik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek diruz lagundutako euren jardunaren bitartez agerpen publiko guztietan euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dute, bai ahoz bai idatziz. Ele-bitan aritzen diren kasuetan lehen tasuna euskarak izanen du. Horretarako, euskararen ahozko ezagutza eta erabilera egokia duten begirale-

**Dagoeneko**

Irurtzunen, Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Ergoienan, Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Urdiainen eta Altsasun onartu dira. Arruazun, Iturmendin, Olatzagutian eta Mank-en hurrengo bilkuran aztertuko dute. Arakilek, Irañetak eta Ziordiak proposamenarekin bat egin dezatela saiatuko dira ere.

ak, aurkezleak, trebatzaileak edota hizlariak hautatuko dira.

Herritar guztiei zabalduko jarduera bat garatu behar duten eta



Soinu ekipoa kirol proba baten hasieran erabiltzeko prest.

diru-laguntza jaso dutenek sortzen dituzten ageriko elementuak, gutxienez, euskaraz egon beharko dute. Aurrerantzean diru-laguntza

eskuratzeko baldintzetako bat hizkuntza irizpideak izanen dira eta beharrezko jotzen diren egiaztapenak egingen dituzte erakundeek.

**SAKANA**

## Nafarroako Gobernuak zortzi lanetarako laguntza eman du

Sakanako Mankomunitateak, ibarreko lau udalek eta kontzeju batek aurten edo heldu den urtean aspaldi aurreikusiak zituzten lanak egiteko finantziarioa izanen dute. Berez diru iturri gutxi duten erakundeak dira toki-entitateak eta finantza krisiaren eraginez haien diru iturri nagusia, Nafarroako Gobernuak, moztu egin zen.

Foru administrazioak atzo jakinarazi zuen Toki Inbertsioen Planean 2014 eta 2015 ekitaldien aurrekontuetarako 40 milioi euro dituela. Horietatik 2.442.780,2 euro etorriko dira Sakanara. Diru horrekin finantzatuko dira 2009-2012ko



Tokiko Inbertsio Planean jasotzen diren eta gobernuaren diru faltagatik egin gabe gelditu diren zortzi lan. Aipatu planeko diruzaintzako soberakina erabiliko da herritan horiek finantzatzeko. Laguntza jasoko duten toki-erakundeek Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren Lege Organikoak egindako eskaerak bete beharko dituzte.

Laguntzak		
Herria	Lana	Aurrekontua*
Irurtzun	Hilerrria egokitu	49.713
Hiriberri	Kontzeju etxea	72.209,79
Uharte Arakil	Itxesi kaleko sareen berritzea	55.774,98
	Itxesi kalearen zolatzea	61.574,53
Lakuntza	Herriko plazaren zolatzea	353.498,25
Etxarri Aranatz	Aldapasoro auzoko sareak berritzea	358.827,95
	Aldapasoro auzoko zolatzea	403.245,73
Mank	Hondakindegia berreskuratzea	1.087.936

\*2009an onartutako aurrekontua.

**Burunda**

## Aisialdi taldeek ikasturtea agurtu dute



Olaztin mozturro festa egin zuten Larunblaiok. UTZITAKOAK.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutiko udalekin batera gaztetxo eta gazteendako aisialdi programa antolatuz, haien artean euskarazko harreman sareak sortu eta indartzeko. Topaguneak kudeatu du programaren martxa eta taldeek hilaren erdialdean despeditu dute ikasturtea.

Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo 22 gazteren artean sortu dute Iseka taldea (DBH). Neguan

sortu zen taldea eta hilero txandakatu, hiru herrietatik pasa dira. Ikasturtea hasita sortutako taldea egonkortzeko dago, baina hurrengo sasoirako gazte gehiago espero dituzte antolatzaileek. Olatzagutian, Larunblai programan, 22 gaztetxo (LH 3-6 mailak) bildu izan dira larunbat arratsaldetan Akelarre ludotekan. Iseka taldean, berriz, igande arratsalde ezberdinak pasatzeko 24 gaztek eman dute izena.

Bi begiralek gidatuta gazteen

gogoko jardura ludikoak egin dituzte. Baina ez dira Burundara mugatu, Iruñerriko Larunblai eta Isekako parte-hartzaileekin ere bat irteerak eta kanpaldi bateratuak egin dituzte, lagun berriak ezagutzeko. Isekakoek, Atarrabiako gazteekin batera, agorrila hasieran kanpaldi batera joateko aukera dute oraindik.

**Udalekuak**

Ibarreko 42 haur eta gazte joanen dira Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuekin batera, antolatutako D ereduko ikasleendako udalekuetara. Astebetez haur eta gazteak ingurune erabat euskaldunetan murgilduko dira, euskara aisialdiarekin lotuz eta primeran pasaz.

18 sakandar Pasai Donibaneko Piraten udalekura (LHko 1-3. mailak) joanen dira, 12 Larraulgo Xamariko udalekura (LHko 4-5. mailak), 5 Orioko Bertso udalekura (LH 4-6 mailak) eta, azkenik, 5 Zugarramurdiko Udaleku Sorgindura (LH6 eta DBHko 1-3. mailak). Autobusen ordutegiak eta beharrezko materialen zerrenda Mank-en web orrian dago.

**Amaya**  
Okindegia-gozotegia

**ARAIA** 945 314 572

**ALTSASU**

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



**ALTSASU**



**OLAZTI**

948 468 755



**ETXARRI**

948 461 660

## SAKANA

# Enplegu tailerra 15 langabe baso lanetan aritzeko trebatu ditu

Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) bigarren baso-lanen inguruko enplegu tailerra antolatu dute. Ostiralean despiditu zen ikastaroa, Arbizun egindako ekitaldian. Lourdes Goikoetxea lehendakariordea eta NEZko zuzendari-gerente M. Isabel Garcia Malo izan ziren ibarreko hainbat agintarirekin batera. Sakanako Mankomunitateak 23.000 euro bideratu ditu tailerrera eta Nafarroako Gobernuak 163.053 euro eman ditu tailer horretarako, eta Europako Gizarte Funtzarekin % 50ean kofinantzatutakoa izan da.

## Helburua

Enplegu tailerrak 25 urtetik gorako langabeen enplegarritasuna hobetzea du helburu, ondoren lan-merkatuan sartzea erraztuko dien espezialitate batean prestakuntza jasoz. Teoria eta praktika uztartzen dira enplegu tailerren. Prestakuntza-plana Mendien kontserbazio eta hobekuntzako jardura osagarrien eta Basoko Birpopulazioen eta basoko tratamenduen Profesionaltasun Ziurtagiriak erreferentziatzen hartuz eman da.

6 hilabetez 760 orduko prestakuntza tekniko jaso dute. Besteak beste ikasi dute: birpopulazio operazio osagarriak, zuzenketaren hidrokologia, baso-azpiegituren eraikitze eta mantentze-lanen operazioak, basoko tratamenduen operazioak eta basoko landareei izurriteak eta gaitzak eragiten dizkien agenteen kontrola, basaren birpopulazioa eta zuzenketa hidrokologikoa nahiz basoko zuzenketa, basoko tratamenduak eta zuhaitzak ipurditik moztea zein motozerrarekin prozesatzea. Gainera, 140 orduko prestakuntza osagarria jaso dute ondorengo gaie-

tan: lan-arriskuen prebentzioa, lehen laguntzak mendian, informatika, aukera-berdintasuna eta enpleguaren bilaketa aktiboa. Ikastakoa ibarreko herrietan lanak eginez praktikatu dute.

## Irakasle eta ikasleak

Pello Igoa tailerreko zuzendaria izan da eta Jon Arregi begiralearekin batera aritu da lanean. Ostiralean despiditu zen tailerraren balorazio "oso positiboa" egin zuen, talde oso ona izan zela nabarmenduz. Ikasleak, batez ere, lan-tegietan edo eraikuntzan urteak emandako langileak ziren. Haietako baten heriotzak taldeak oraindik gehiago batu zuela nabarmendu zuen, alargunari egur lotea egitera arte. Eguraldiak ez die lagundu (60 lan egunetatik 25 edo gehiagotan euria egin du) basoan nahi beste egiteko, baina horrek aukera eman die beste ezagutzak lantzeko (makinak eta beste).

Gaur egun sektorean lan gutxi badago ere, "buruari pixka bat emanda" lana egon daitekeela azaldu zigun Igoak. "Horretarako etarako nahiko prestatuta daudela uste dut". Gaur egun nork bere alde aritzea ikusten du egokien, "autonomo jarritz edo kooperatiba sortuz, beste batek ez zaituelako kontratatuko". Ikastakoarekin hasteko, behintzat, badute nahikoa.

Aurretik eskarmentua bazuen Babestutako Gizarte Laneko begirale gisa Irurtzunen eta Altsasun aritua baita. Jendearekin aritzea "oso aberasgarria" dela azaldu du, asko gustatzen zaiola aitortu du Igoak. Bestalde, ikasleek ikastaro "aberasgarria" izan zela aitortu ziguten. Hala ere, etorkizuna beltz ikusten dute, baso-lanetarako laguntzak kendu dituelako Nafarroako Gobernuak.



Enplegu tailerreko parte-hartzaileak agintariek batera.

## Adierazpenak

Goikoetxeak nabarmendu zuen halako lan tailerren bidez, jasotako ezagutzekin "langile izateaz aparte ekintzaile izatea planteatzea eta nork bere jardura martxan jartzeko bidea" ematen dela. Bestalde, Nafarroako Gobernuak biomasa garatzeko plana egin zuela nabarmendu zuen (energia sortzeko edo pelleta egiteko). Sakanan arlo horretan zenbait enpresa lanean ari direla nabarmendu zuen eta ibarrean arlo horretan garapenerako aukera dagoela esan zuen Goikoetxeak. Bestalde, kooperatibismoa edo ekonomia sozialeko enpresak sustatzeko ANELEkin lanean aritu direla jakinarazi zuen Goikoetxeak. Sakanarako aukera izan daitekeelako, hurrengo tailerretan halako prestakuntza gehitzea interes-

garria litzatekeela gaineratu zuen lehendakariordeak.

Sakanako Mankomunitateko presidentea Aitor Karasatorre Mugarzak esan zuen halako tailerretan asko ikasten dela, baina hutsunea ondoren nabaritzen du Mank-eko buruak: "bigarren helburua lanean hasi daitezela da. Hor lan asko egin behar da. Aldez aurretik jende hau lan munduan txertatzeko modua landu behar litzateke. Halakorik ez dago". Aurreko urteko esperientzia gogoratu zuen, 15etik 2k sortu zutela enpresa bat. Aurten Sakanako Garapen Agentziaren bidez, ahaleginak egingen dituzte parte-hartzaileak lehenbailehen lanean hasteko. ANELEkin harremanetan jarriko dira kooperatiba sortzeko aukerak aztertzeko. Baina Gober-

nuari ere laguntza eskatu diote. Etorkizunean Mank-ek tailer gehiago eskaintzeko aukera aztertzen ari da. Baina baso-lanen ingurukoak izan beharrean energia edo turismo arlokoak izanitezkeela adierazi zuen Karasatorrek. "Plan estrategikoaren zain gaude. Han beharrak zehaztuko dira eta haien arabera erabakiko dugu zein izan den hurrengo urteko enplegu tailerra". Karasatorrek azaldu zuenez, enplegu tailerrena administrazioetatik enpresetara zabaldu da. Mank-ek eta Garapen Agentziak Irurtzundik jasotako proposamena babestu dute, 3 dimentsioen inguruko enplegu tailer bat egitearena. Karasatorrek, bestalde, aipatu zuen Nafarroako Gobernuak biomasa-lanen inguruan izan dezakeen egitasmoa oraindik berde dagoela.

## MOTZEAN



## Ura bere bidean

Igandean Larraun ibaiak gainezka egin zuen Irurtzunen eta baratzak urpean gelditu ziren. Arakil ibaiak gainezka egin zuelako Uhartea Arakilen Irañetarako eta santutegirako bidea itxi egin zuten 8:40an. Baina ibaiaren gora, Ziordian, izan ziren euritearen ondorioak sumatu zituzten lehenak. Ibai ondorengoan dagoen Egutera kaleko bizilagunek esan digutenez, aspaldi ez zutela halako uholderik ikusten.

Denbora gutxian euri asko egin zuen eta ibaia berehala hazi zen. Baratzak azpian hartu zituen. Etxabe eta bajearen batean ura sartu zen, baina emaria jaistarekin batera atera zen ere. Babesteko are zakuak jarri zituenik ere izan zen. Lizarragako portuaren goiko partean hiru luizi izan ziren.

## Dendari, zurekin gaude

Ostiraleko ekaitzagatik bertan beharra gelditu zen Abian plataformak antolatutako cash mob ekimena eta atzo egitekoak ziren. Abian-eko kideak ekimen horrekin kontsumitzaile eta herritar izaerak uztartu nahi ditu, eta horregatik, erosketak era kolektiboan egitera deitu zuen. Hala, herriko dendariei "une latz hauetan elkartasuna adierazi" nahi

zieten. Bestalde, cash-mob-aren bidez "persona arduratsuagoak bilakatzeko bidean aurrerapauso bat" izan nahi du. Horregatik, Abian-etik aldarrikatuko dute, dendariei eta autonomoei babesa adierazteko erosketak herrian egitea bezalakorik ez dagoela. Abian-ekoek esperientzia Sakanako beste herrietan errepikatzea aztertzen ari dira.

## Altsasuko peñak, atzo, gaur eta bihar

Altsasuko peñak 1950 eta 2012 urte bitarteko argazkiak bildu dituzte eta asteburuan Gure Etxea eraikinean ikusgai jarriko dituzte. Peñetako kideek, hainbat altsasuarrek eta hedabideek, tartean Guaixek, emandako argazkiekin ondu dute erakusketa peñetako kideek. Erakusketa zabaltzarekin batera, gaur,

19:00etan asanblada dute eraikin berean.

## Bizi, Alde Zahar, lagunak

Alde Zaharreko bizilagun talde batek auzotarren bazkaria antolatu du biharko. 120 auzotar bilduko dira Ferial kalean zikiroa bazkaltzera. Musika ere ez da faltako. Udaberrian auzotar batzuk sagardotegira egindako bidaian sortu zen ideia

## Kanpinerako bi eskaintza

Nafarroako Gobernuak Urbasako kanpinaren kudeaketa emateko aurreneko deialdia hutsik gelditu ondoren, bigarren deialdi bat egin zuen. Aurrekoarekiko zenbait aldaketa sartu zituen gobernuak eta bi proposamen jaso zituen gobernuak. Haiek aztertzen eta baloratzeko ari dira.

## MOTZEAN



## Euskara irakasleen topaketa

Sakanako Gau Eskoletan eta Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundean, AEKn, aritutako irakasleen biltzeko deialdia egin berri dute. Irailaren 21ean, larunbatarekin, bazkari batean biltzea da asmoa. Antolakuntzan dabilen Jose Mari euskara irakasle izandako 100 inguru sakandarrei izena emateko deiegindie. Horretarako, hots egin 646 040 054 telefonora.



» Irurtzun

# Desegitea geldituta, konponbideak bilatzeko garaia da Inasan

Aukera guztiak aztertzekeo 15 egun dituzte aldeek. Inbertitzaile ingelesaren ordezkariak, Grant Thorton, atzo etorri ziren

Merkataritza-arloko epaileak Inasako makinariaren salmentako betearazte-autoa 15 egunez zuhurtziaz indar gabe utzi du, langileek hala eskatuta. Hartzekodunen prozesuan dagoen enpresa batean halakorik estuan egiten den aurreneko aldia da. Epaileak kontuan izan du inbertitzaile ingeles batek interesa azaldu duela, horrek Baikapek proposatzen dituen 13 lanpostuak baino gehiago sortuko lituzkeenez, geldiarazi egin du makineriaren salmenta. Gainera, inbertitzaile ingelesaren ordezkariak atzo etorri ziren eta epailearekin, zuzendaritzarekin, hartzekodunen prozesuko administratzaileekin (Sindicatura), Nafarroako Gobernuarekin eta Inasako zuzendaritzan aritutako langile batzuekin hitz egiteko asmoa dute. Egoeraren argazkia egin eta 15 egun hauetan eskaintza eginen dute. Horretarako, dagoeneko informazioa eskatu diote Sindicaturari.

Ate hori zabaltzeko lan egin duten langile ohiek eta LAB sindikatuko kideek esker oneko hitzak izan dituzte lorpen horretan lagundu dituzten herritar guztiak. Azken hilean administratzaioak bakarrik utzi dituela salatu dute. Makineria salmentaren geldiaraztea egindako mobilizazio eta presio politikoaren fruitu izan dela ziurtatu dute. Gauza bera duela hilabete lortu zitekeela salatu dute, "eta hemen kontzentratutakoen osotasuna arriskuan jarzea eragotziko genuke".

Esan dutenez, hartzekodunen prozesuko administratzaileek eta Nafarroako Gobernuordezkariak aitortu diete "joan den urteko garagarzaroan sinatutako

Enplegu Erregulazio Espedientea Inasa berriro zabaltzeko zama handia" izan dela. Horregatik esan dute: "gaur sindikalgintza arduratsua da lantegiko atean dagoena, herritarren babes bilatzen duena eta gure industria-ehunarekin espekulatu nahi dutenei aurre egiten diena". Hala erantzun zieten asteartean UPNk eta PPK Parlamentuan "zantzuzko sindikalgintzaren alde" egingako aldarriari.

## Eskaerak

Borrokan dauden langileak eta LABeko kideek Inasarendako "konponbide erreala" lortu arte jarraituko dutela adierazi dute. Lourdes Goikoetxea lehendakariordeari eskatu diote bere eragiteko botere guztia erabil dezala. "Bere egitekoa eta beharra gai honetan bustitzea da, Irurtzunen eta Sakanak dugun enpresa aktibo garrantzitsuena gal ez dezagun".

Baikap-en (Bavaria Industrial Kapital AG) Inasako kudeatzaile Santiago Gonzalez Berganzonesi adierazi diote aukera duela inbertitzaileekin bildu, haien proposamenak aztertu eta lantegiaren jarraipena errazteko. "Orain arte negoziatzeari eta edozein inbertitzaileekin hitz egiteari uko egin dio. Jaun hori Inasa itxi eta bere berririkiera eragoztera etorri zen". Hartzekodunen prozesuko administratzaileek eta Nafarroako Gobernuak Baikap-epresio egiteko eskatu dute. Hala ere, mobilizazioekin segitu beharra nabarmendu dute.

Azkenik, eskatu dute Inasakoez diren langileak lantegian sartzearagozteko, esaterako makinariaren lote bat 3,1 milioi eurotan Bridgnorth Aluminium Limited erosi duen enpresako langileak. Izan ere, haietako 20 bat makineria ateratzeko lanak egiten ari dira eta hori eragozteko hesiak jarri zituzten herenegun atearen aurrean. Guardia Zibilari epaile-



Makinaria erosi duten enpresako langileak autoan eta beste bi kalean. Tentsio uea izan zen ostiralean.

## Debekuak eta probokazioa

Gobernu Ordezkaritzak debekatu egin zien ate ondoan zain-tza txandak egitea. Hotelarendako errotondaren pareraino urrutzeko agindu zien ostiralean Guardia Zibilak langileei. Ordezkaritzatik beretik ate aurrean kontzentratzeko debekua ere emandite. Ostiralean prentsaurrekoa zegoen bitartean jarri ziren ate aurrean soilik. Horretan zeudela, Inasa barrutik auto bat atera nahi izan zuten. Hala-ko probokazioak etengabeak izan direla salatu dute langileek. Makineria lote bat erosi duten ingelesak eta segurtasun taldeak gatazka egoera sortu nahi dutela uste dute langileek.

aren autoa erakutsi eta britainarraren langileak 15 egunetarako alde eginen dute, lau auto errebisatuak izan ondoren. Langileek adie-

## Udalak Inasarako aukera eskatu du

Irurtzunge alkate Txiki Iriartek, udaleko alderdi guztien izenean, babes eta elkartasuna azaldu die Inasako langile ohiei, "enpresa berpizteko alternatiba bila ahalegin izugarria egiten ari dira". Inbertitzaileak azaldutako interesa gauzatzeko egin beharreko guztia egiteko prest azaldu da alkatetza, udalaren izenean. Iriartek Baikapi inbertitzailearekin mahaian esertzea eta haren proposamena entzutea eskatu dio. Izan ere, alkatearen iritziz, beste edozeren gainetik enpleguaren mantentzea da lehentasuna.

+www.guaixe.net

razi dute zilegitasuna dutela "lantegiaren etorkizuna arriskuan jartzten duen edozein ekintza gelditzeko".

## Baikap: Inasa Foil-ek 29,6 milioi euroko zorra egin zuen 10 urteetan

Hala dio Bavaria Industrie Kapital AGk, Baikap-ek zabaldutako duen ohar batek. Baikap-en arabera joan den urtean bere asmoa "lanpostua epe luzera bermatzea" izan zen, "historikoki galarak dituen enpresa bat ez baita enplegurako inolako bermerik". Enplegua bermatzeko langileen soldatak metalgintzako hitzarmen kolektibora moldatu beharra zeudela ziurtatu du enpresak. "Baina ez zen onartu eta orain hartzekodunei ordaintze besterik ez da gelditzen". Baikap-ek ziurtatu du inoiz ez duela espekulatu, baizik eta epe luzera lantegiaren jasagarritasuna bermatuko lukeen berrantolaketa egiten saiatu zela, "irabazietara bueltatu, pilatutako zorra ordaintzeko".

+www.guaixe.net

## SAKANA

### Erabakitze eskubidearen aldeko metatzea

Ideologia ezberdinetako herritarrek batu nahi ditu Gure Esku Dago mugimenduak, "haiek erabakiko baitute Euskal Herriaren etorkizuna". Zer izan nahi duten erabakitze eskubidea izatea, autodeterminazio eskubidea helburu du Gure Esku Dagok. Eta hori ez dute politikarien esku bakarrik utzi nahi, herritarrek akuilu lana egitea nahi dute.

Manifestu motz bat ondu du mugimenduak bere helburuen

berriemateko. "Demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak batzen gaitu, giza eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatu, autodeterminazioaren eta erabakitze eskubidearen aldekoak". Erabakitze eskubidearen bidegurutzerako bidea ideologia ezberdinetako pertsonen artean egin behar dela uste dute.

Heldu den urterako bi erronka handi jarri diete euren buruari. Donostian 3 eguneko ekitaldi jen-

## Aurkezpena

Ostegunean, hilak 20, 19:00etan Altsasuko Gure Etxean.

detsu bat egitea eta 2014ko garagarzaroaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katea egitea. 130 km-ak lotzeko 50.000 pertsona beharko dira. Sakanara Lizarrustitik sartuko da katea eta Lizarragabengoatik Aizkorbera arteko lotura egiten da.

## etxarri aranazko udala

UDAL PLANENKO EGITURAZKO ALDAKETA  
PUNTUALAREN FUNTSEZKO ALDAKETA:  
SR-7, AR-7, UE 23 (HASIERA)

Felix Agirre Gamboa jaunak Etxarri Aranazko Udala Planeko egiturazko aldaketa puntualeko Testu Bateratua aurkeztu du; hain zuzen ere, 3. poligonoko 339. eta 338 lurzatietan dagoen sektore berria, lurzoru urbanizagarri sektoretzatuta, SR-7, AR-7, UE23.

Ikusirik proposatutako testu funtsezko aldaketa dela; 35/2002 Foru Legearen 70.9 artikulua jarraituz espedientea eta proiektua hilabetez egonen dira jendaurrean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunek eskura izanen dute espedientea Udalaren bulegoetan, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.



ETXARRI  
ARANAZKO  
UDALA

Etxarri Aranazten, 2013ko maiatzaren 31n.  
Alkatea, Jose I. Bakaikoa Aristorena

## » Arakil

## Goi tentsioko lineari buruzko galdeketa 6 herrietan

**Bihar eta etzi egingen da Errotzen, Urritzolan, Zuhatzun, Satrustegin, Hiriberrin eta Ihabarren**

Deikaztelu eta Itsaso arteko goi tentsioko linea egitasmoaren alde zaude? Galdera horri bai edo ez erantzuteko aukera izanen dutesei herri horietako arakildarrek. Iritzia emateko ontziak herrietako elkarteetan egonen dira, Errotzen ezik, Oskia tabernan egonen dela. Igandeko 19:00ak arte eman ahal-ko da iritzia.

Autopista Elektrikorik Ez! plataformak antolatu du galdeketa hori eta Nafarroako eta Gipuzkoako 34 herritan egingen da. Plata-

formako kideak galdeketetan parte hartzera deitu dute. Aldi berean, erakundeei dei egin diete kontuan izan ditzaten galdeketaren emaitzak, baita haiek errespetatzera ere.

**Martxa**

Arakil eta Iza lotu zituen igandean, euripean, mendi martxa batek. Bi ibarretako herritarrez aparte Euskal Herriko beste zenbait tokitatik etorritako mendizaleak egin zuten ibilbidea, 29 guztira, hasieran 50 inguru bazeuden ere. Goi tentsioko linearen ibilbidea eta haren ondorioak zein liratekeen



Ibilbidea egin ondoren Satrustegin bazkaldu zuten. UTZITAKOIA

ezagutzeko aukera izan zuten mendizaleek. Herritar harrizuen aurrean mendizaleek adierazi zuten

haien borondatea "sutsu" defendatuko dutela "bidegabekeria guztien aurrean".

**Hitzaldiak**

Plataformako kideak aste honetan 6 herrietan informazio hitzaldiak antolatu dituzte. Azken biak gaur izanendira, 19:30ean Hiriberrin eta 21:30ean Ihabarren.

Gainera, REEek aurkeztu duen proiektuari herri alegazioa aurkeztu nahi dio Autopista Elektrikorik Ez! plataformak eta 10.000 sinadura bildu nahi ditu. Sakan-darrak sinadura bidez babesazal-tzera deitu zuten plataformatik.

**SAKANA**

## Errausketagatik guraso talde batek Nafarroako Gobernu salatu du

Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CESIC) zientzialari titularra den Fernando Palaciosen laguntzaz, porlandegiko errausketa egitasmoak eragindako eskualdeetako guraso talde batek Nafarroako Gobernu Estatuko Fiskal Nagusi Eduardo Torres Dulceren aurrean salatu du. Udansalaketan babesteko sinadura bilketa egingen dute guraso horiek.

Gobernuak porlandegiari emandako Ingurumen Baimen

Bateratu berriaren tramitazioaren prozeduragatik, herritik hain gertu hondakinak kudeatzeko proiektuari emandako babesagatik, proiektu honen eta pertsonen osasunaren eta ingurumenaren zaintza aldi berean ezinezkoak direlako salatu dute gurasoek Nafarroako Gobernu. Baita foru administrazioko goi kargu izandako eta egun Cementos Portland Valderrivaseko (CPV) arduradun diren bi pertsonen bateraezinta-

una salatu dute ere.

**Zergatiak**

Salaketarako oinarrietan guraso taldeak dio Nafarroako Gobernuaren jokaera alde aurretik pentsatua izan dela. Aldi berean, nabarmendu dute interes orokorraren defentsa ezin dela erreferente den legedi nagusiaren kontrako beste tokiko araudi batzuk garatuz egin. Gurasoek gaineratu dute hondakin kudeaketa

non kokatuko den zehazten denez, herri galdeketa eta parte hartze publikoa nahitaezkoa dela.

Gainera, arduradun publikoei "ardura eza" leporatu diete, "herritarren osasuna eta hauen ogibidea arriskuan jartzeagatik". Nafarroako Gobernuaren jokabidean CPV-rikiko "alderdikeria" ikusi dute. Azkenik, nabarmendu dute errausketaren kontra azaldu direla gizartea, toki erakundeak eta eragileak.



Gurasoak eta Palacios.

## » Olatzagutia

## Astlehenean zabalduko da musika eskolan izena emateko epea



La Cigarra txarangako musikariak festetan. ARTXIBOIA

**Hilaren 28ra arte egonen da zabalik, udaletxean. Informaziorako 948 468 128 telefonoa edo olaztimusika@gmail.com e-posta**

Udal musika eskolako ikasketa planak 3 hezkuntza maila ditu. Lehena 5 eta 6 urteko haurren dako, musika eta mugimendua lantzen dituena. Bigarrena, 7 eta 12 urte bitarteko haurren dako eta, azkena, 13 urtetik gorakoendako eta helduendako dena. Izena ematen dutenek pianoa, eskusoinua, gitarra klasiko eta elektriko, saxofoia eta trikitixa ikasteko aukera dute. Beste tresnak behar-arabera emanen dira.

Matrikulari dagokionez, izen emate eskubideagatik 56 euro ordaindu beharko dira eta beste

18 irakasgai bakoitzeko. Gainera hileroko kuotak honakoak dira: musika eta mugimendua: 29 €; hizkuntza musikala bakarrik: 31,50 €; hizkuntza musikala eta musika tresna: 63 € eta tresna bakarrik edo bigarren tresna: 33 €. Musika eskolan bi seme-alaba baino gehiago matrikulatuta dituzten familiek % 50eko hoberia izango dute tarifa guztietan (eskubideak, matrikula eta hileko kuota), matrikulatuta dagoen bigarren seme-alabatik aurrera. Bestalde, famili ugariak % 50eko hoberia izango dute familiako kide bakoitzaren matrikulan. Hoberia hau ez da hileko kuota guztietan aplikatuko.

## » Altsasu

## Militarizazioaren kontra, alde hemendik

Euskal Herriko militarizazioa salatu eta behin betiko bukatzeko eskatuz, bihar Alde Hemendik, I. egun nazionala ospatuko da. 15 herrietan izanen dira mobilizazioak eta horietako bat Altsasu izanen da. Alde Hemendik herri mugimenduak deitu ditu mobilizazioak. Bere azken helburua indar okupatzaile guztiak Euskal Herriatik joatea dela azaldu du. Mugimendutik erakundeei zentzu horretan neurriak har ditzatela eskatu diete eta, herritarrei, antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko.

Alde Hemendik herri mugimendutik salatu dutenez, 165 biztanleko polizia bat dugu. Euskal Herria osorik hartuta, mila biztanleko 6 polizia daude, Zipreren atzetik Euro-

**Egitaraua**

**10:00etan** Martxa hasiera plazan.  
**12:00etan** Auzatea "Gurutzea"-ren ondoan.  
**12:30ean** Ekitaldia.  
**15:00etan** Bazkaria.  
**19:00etan** Kontzentrazioa  
**19:30ean** Triki poteoa.  
**22:30ean** Kontzertuak gaztetxean: Kaos Urbano eta Shock Waves.

pako Batasunean polizia dentsitate handiena duen herrialdea da Euskal Herria, Turkia edo Irlanda Iparraldearen aurretik. Europako Batasunak mila biztanleko 2 polizien ratioa gomendatzen du.

Berria egunkariak asteartean argitaratu zuenez, azken hiru urtetan gora egin du Espainiako Poliziaren eta Guardia Zibilaren agenteen kopuruak Hego Euskal Herrian.



Manifestazioa Guardia Zibilak zainduta. ARTXIBOIA

**SAKANA**

## Euskal iheslari politikoen mintzakidetzaren taldea sortu dute

**14 iheslarik osatzen dute taldea eta tartean dago Lourdes Mendinueta arbizuarra**

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboaren 30 bat kidek atzo Baionan jakinarazi zuten mintzakidetzaren talde bat sortu dutela. Estreinakoz ordezkatu da kolektiboaren talde batean horregatik gertakari historikotzat jo zuten. Iheslarien kolektiboaren "izaera anitza eta zabala nagusitu dira ordezkari hau hautatzerako garaian" azaldu zuten.

Iheslariekin hitz egin beharra dagoela aldarrikatu zuten, "korapilo politikoen parte izanik korapilo hori askatzeko manerarik zuzenen baita". Estatuei dei egin zieten, "gure arazo politikoa integralki konpontzeko iheslariak kontutan hartu behar dituzte eta haiekin hitz egin behar dela oroitarazten diegu". Aldi berean, deia luzatu zuten euskal eragile sozial, sindikal, politiko eta herritarrei "iheslariekin hitz egiteko gonbidapena luzatuz".

**Bost**

Sakanako iheslari politikoen 5 dira: arbizu bat eta bina etxarriar eta olaztiar.



## » Altsasu

## Lazaro Echeverriako langileak martxan

Lazaro Echeverriako langileek mugagabeko grebako 101. eguna euren aldarrikapenak Iruñera eramanez bukatuko dute. Kaleratu-tako sei langileak berriro hartu edo baldintza duinetan kaleratuak izatea eskatzen dute. Eta horrekin batera, enpresarako lan hitzarmen duin bat. Enpresak dituen Altsasu eta Ziordiko lantokien sarreran eta Altsasuko azokako protestak utzi eta sakandarrei euren egoeraren berri emateko Iruñerarako martxari ekin zioten

herenegun.

Atzo eguerdian Inasako langileekin bat egin zuten eta gaur eguerdian ELAko delegatuek harrera eginen diete. Nafarroako Parlamentuko presidentearekin hitz egiteko eskaera egin dute eta espero dute alderdien ordezkariekin elkar-tu eta haien egoeraren berri emateko aukera izanen dutela.

Langileak abiatu aurretik, Altsasuko Udaleko Bildu, Geroa-Bai eta IUko zinegotziei haien egoeraren berri eman zieten. Salatu

zuten haiek negoziatzeko prest daudela, greba hasi bezperan euren proposamena aurkeztu ziotela zuzendaritzari, gutun bidez ere saiatu direla euren negoziatzeko prestutasuna azaltzen, "baina zuzendaritzaren aldetik ez da inolako pausurik eman. Ez dute boron-daterik". Eta ez dela diruagatik nabarmendu dute. Langileek azaldu dutenez, grebak iraun duen bitartean harri-lubetarako 20.000 tona atera dira, eta 80.000 tonako lana hartu dute.



Herenegungo beroaren ondoren eguraldi freskoarekin hobe ibili ziren.

## » Lakuntza

## Parkea egitera

**Bihar, larunbata, egun osoko egitaraua prestatu dute**

Lakuntzarrek beraiek irudikatutako parkea egiteko finantziazioa behar da eta hori da biharko egunaren helburua, parke berri bat egiteko dirua biltzea. Izan ere, zinemako lanek herria haurrendako jolas parkerik gabe utzi zuten.



Bigarren eskuko azoka eta hainbat jarduera gehiago izanen dira bihar.

Parkea Martxan batzordea sortu zen eta aisialdi gunea berritzeko proiektua ondu du. Hura egiteko dirua udalak eta batzordeak jarri-

ko dute. Bihar, gainera, parkeko zirriborroak eginak daudenez, haurrek gogokoena dutena bozkatzeko aukera izanen dute.

## Egitaraua

**11:00etan** Haurrendako tailerrak.  
**12:30etan** Erraldoiak eta buruhandiak.  
**13:30etan** Elai Alai dantza taldea.  
**17:30etik 20:00etara** herri kontzertuak.  
**20:30etan** Dj Sergei.  
**Egunean zehar** edariak, pintxoak eta bigarren eskuko azoka izanen dira.

## » Bakaiku / Iturmendi

## Independentziaren aldeko eguna

Bakaiku eta Iturmendiko Sortuk eta Ernaik antolatu dute bihar azken herrian ospatuko den Independentzia eguna. Bi herrietako independentisten arteko harremana bulkatzearekin batera, independentziaren aldeko indarrak batu nahi dituzte biharko egunarekin. Ekitaldietan parte hartzeko gonbitea egin dute.

Antolatzaileek adierazi dute-

nez, "Euskal Herriaren burujabetza politikoa eta ekonomikoa inoiz baino garrantzitsuagoa da, gure herriaren etorkizuna dagoelako jokoan". Euskal Herriak "zapalketa bikoitza pairatzen" duela salatu dute: "estatuen jazarpena eta kapitalaren diktadura". Horregatik, ezinbesteko jo dute "benetako aldaketa politikoa eta soziala, eta horretara goaz, alternatiba

## Egitaraua

**11:00etan** Kalejira.  
**11:30etan** Puzgarriak, zaldi ibilaldiak, japoniar bonbak, haurrendako jolasak...  
**13:00etan** Mural margotzea.  
**14:30etan** Bazkaria, paellada. Ondoren, Fermin Balentziaren kantaldia eta mus txapelketaren finala.  
**18:00etan** Herri olinpiadak: Bakaiku vs Iturmendi.  
**19:30etan** Kontzentrazioa eta ekitaldi politikoa.  
**20:00etan** Auzatea.  
**22:00etan** Afaria eta sorpresak. Ondoren, kantaldia eta dantzaldia Edorrekin.

politikoa eta ekonomikoa borrokatu eta gauzatzera".

## » Etxarri Aranatz



Jan, edan eta dantza. Festa osoa.

## San Adrian, igandean

Etxarriarrek estimu handian duten eguna ospatuko dute etzi, San Adrian. 9:00etan udala, txistulariez lagunduta, beheko basoko bidea hartuko du. 10:30 aldera, fritada izanen da (haragi gisatua eta zopa). Sabeleko zuloa berdindu ondoren ardo kupelaren (eta alkoholik gabeko edarien) inguruan bilduko dira mor-do bat. Besteak, nor bere mahaian, bazkaria prestatzeko eta hizketan aritzeko. Eguerdian ermitan meza izanen da.

Bazkaldu ondoren, 18:00etan, txistulariek mahaiz mahaiko erronda eginen dute eta dantza saioak izanen dira han-hemen. Dantzakia dantzatu ondoren Gernikako arbolakantatu eta kalejira amaigabeen herrirako bidean abiatuko dira etxarriarrak. Gauerdia aurretik herrira iritsiko dira. Plazan Trikidantz taldearen doinuak izanen dira 20:30etik 21:30era eta 22:30etik 3:00etara. Atzo herriko patroien eguna ospatu zuten Etxarrin. Eguerdian meza izan zen eta ondoren soroak bedeinkatu zituzten. Eguraldiak ez zuen gehieg lagundu Andra Mari ermita inguruan merendatzeko. Dantzaldiarekin ordu txikietaraino luzatu zen parranda.

## » Lizarraga

## Hiru festa egun aurretik

San Adrianen omenezko festak bihar hasiko dira



## Egitaraua

» » **Garagarriak 15, larunbata**  
**10:30etan** Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.  
**13:00etan** Meza mendian.  
**17:30etan** Dantzaldia Amalur taldearekin.  
**18:30etan** Menditik jaitsiera.  
**19:30etan** Alkatearen etxean auzatea.  
**20:00etan** Lizarragako Zortzikoa herriko plazan.  
**22:00etan** Herri afaria.  
**00:00etan** Trio Epsilon taldearekin dantzaldia.  
**Egun guztian zehar** Amalur musika taldea giroa animatzen  
» » **Garagarriak 16, igandea**  
**11:30etan** Amalur taldearekin kalejira.  
**13:15etan** Herri Meza.  
**14:00etan** Amalur taldearekin kalejira.  
**18:00etan** Gorriti eta bere animaliak.  
**19:00etan** Sardinada eta txistorrada herriko plazan.  
**20:00etan** Herri kantak.  
**Goizez** frontoian haurrentzako puzgarriak.  
» » **Garagarriak 17, astelehena**  
**11:00etan** Gosaria herriko plazan.  
**14:30etan** Kalderetea kuadriletan.  
**17:30etan** frontoian haurrentzako puzgarriak.  
**20:30etan** Herri afaria herriko plazan.  
**Ondoren** gau giro ederra.  
**Goiz eta arratsaldean** frontoian haurrentzako puzgarriak.

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**  
**Berria erosi taldea**

**GANUZA**  
**SUKALDEAK**  
SUKALDERAKO ALTZARIAK  
Bainu gelako altzariak  
Horma armairuak  
Elektragailuak  
**GANUZA**  
**GARANTIAREKIN**  
Tel.: 948 460 203  
faxes: 948 460 673  
Etxarriko industrialdea  
ETXARRI-ARANATZ

**FELIX OTEGI**  
**TAXIA**  
9 lagunendako  
tokia  
**660 342 071**  
**IRURTZUN**

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisaunak  
Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 19 70 70**

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

Nor da  
gure txikita polittena?

**Maider**

**Aner, Ama eta Aita**



**Maider Jimenez Lecea**

Bazen behin,  
hegaz egin zuen txoritxo...

Muxu asko asko politta



**Maider Jimenez Lecea**

(Gure lankide Gixaneren iloba)

Une latz hauetan bat egiten dugu  
familiaren saminarekin.

**bierrik**  
fundazioa

**Bierrik fundazioko langileak**

**Petra Berastegi Tay**  
(Amala)

Zue umoriakin gogutu neyen  
biyotz-biyotzes zue billobak.

**Ainhoa eta Raul, Axier, Mainer eta Mikel, Leire  
eta Jon, Joseba Andoni eta Naiara, Odei eta Miren,  
Haitz eta Oihana, Lur eta June**

**Oroigarriak**



**GUAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

**948 564 275**



**Maria Luisa**  
**Bengoetxea Garziandia**

Eskerrik asko une latzetan  
gure ondoan egon zareten guztiei.

**Senarra eta seme-alabak**

Urdiain, 2013ko ekainaren 9an.



**Maria Luisa**  
**Bengoetxea Garziandia**  
"Maixa"

Azkar bukatzen dira  
beti gauza onak:  
oporrak, jaiak,  
Eguberri edo Gabonak,  
urtebetetzeko festak,

inauteri edo aratusteak,  
gozokiak eta mazapanak,  
filmak edo ipuinak.  
Hasiara duen guztia  
harrapatzen du azkenak.

**Ixone, Manex eta Kimetz**



**M<sup>a</sup> Luisa**  
**Bengoetxea**  
**Garziandia**

Maitasunaren emate  
nekaezina.  
Zurekin ikasitakoa gure  
artean betiko geldituko da.  
Eskerrik asko izeba  
Maria Luisa.

**Pedron itxeko fameliye**

[guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

**Lana/ Negozioak**

**LAN ESKAINTZA**

Gitarra klaseak, udako zikloa gitarra akustikoa eta elektrikoa. Datak: ekainaren 25etik abuztuaren 15era. Kontakua 653-17 54 68 telefonoan edo [huesoypeyejo@gmail.com](mailto:huesoypeyejo@gmail.com)

**Higiezinak**

**ETXEBIZITZAK**

**SALGAI**

**Etxe adosatu bat salgai edo alokairuan**  
**Uharte Arakilen.** Alokairua 500 €, salgai 150.000 €. Interesatuak hots egin 629- 83 50

42 telefonora.

**Oparitakoak**

**Katakumeak oparitzen dira.** Interesatuak hots egin 669- 35 42 30 telefonora.

**Opatutakoak / galdutakoak**

**GALDUTAKOAK**

**Nokia mugikor arrunta.** Galdu nuen Etxarriko Iratxo tabernan. Opatu duenak, mesedez, utz dezala Guaixeko Altsasuko bulegoan. Esker mila.

**Dantzari zapi bat galdu zen.** Ekainaren 8an Urdiainen. Opatu duenak, mesedez, hots egin dezala 648- 14 15 60 telefonora. Esker mila.

**M<sup>a</sup> Luisa Bengoetxea**  
**Garziandia Anderea**

(Xabi Flores Iñigo Aritza Ikastolako Juntakidearen ama)

Urak dakarrena  
urak daroa,  
zuk emandakoa  
gurekin geldituko da.



**Iñigo Aritza Ikastolako guraso, ikasle eta langileak**

**JAIOTZAK**

• **Unax Garziandia Iraurgi,** ekainaren 3an Etxarri Aranatzan.  
• **Clara Llamazares Cabello,** ekainaren 4an Altsasun.  
• **Marwa El Attaoui,** ekainaren 5ean Lakuntzan.

• **Eider Arraras Zubieta,** ekainaren 6an Irurtzunen.

**EZKONTZAK**

• **Sergio Galbete Razkin eta Mainer Oartzun Goñi,** ekainaren 1ean Olaztin.

• **Javier Rivero Ramos eta Alexia Escudero Aguilar,** ekainaren 7an Altsasun.

• **Ricardo Areta Urrestarazu eta Olga Erdozia Anso,** ekainaren 8an Lakuntzan.

**HERIOTZAK**

• **Maider Jimenez Lecea,** ekainaren 7an Altsasun.  
• **Maria Angeles Ijurko Auzmendi,** ekainaren 8an Altsasun.  
• **Maria Luisa Bengoetxea Garziandia,** ekainaren 9an

Urdiainen.

• **Petra Berastegi Tay,** ekainaren 9an Lizarragan.  
• **Fermin Mendia Goikoetxea,** ekainaren 11n Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da



## KARATEA

**NKJ IRURTZUNEN:** Irurtzunek Nafar Kirol Jolasen Karateko 4. jardunaldia hartu zuen ekainaren 1ean. Nafarroako 10 klubetako

180 karateka aritu ziren kata promozioa izeneko mailan. Shotokan Irurtzun emakumezkoen haurren B mailako talde onena izan zen.

## Txirrindularitza

## Arbizuko II. Master Saria igandean

Arbizuko master mailako txirrindularitza proba hartuko du igandean, 10:30ean. Seniorrak eta master 30, 40, 50 eta 60 kategoriako txirrindulariak ariko dira. 80 kilometroko probari egin beharko diote aurre, Arbizu, Lizarragabengoa, Etxarri Aranatz, Arruazu, Lakuntza, Unanu, Dorrao eta Lizarragatik barne. Jakina, Lizarragako Katea igoko dute. Proban ariko diren Euskal Herriko, Kantabriako, Aragoiko, Errioxako eta Burgosko txirrindularien artean sakandarrak izango ditugu: Aralar taldeko Alfredo Amillano, Mikel Sarasola eta Fidel Jimenez, Ciclos Gameneo Alex Maya eta Angel Moreno eta Goerna taldeko Iker Zabaleta eta Iraitz Goñi.

## SAN KIRIKO TXIRRINDULARI SARIA ETXARRI ARANATZEN

Bihar, larunbatean, 17:00etan, haur mailako San Kiriko txirrindulari saria jokatuko da Etxarri Aranatzen, Aralar Txirrindulari Taldeak antolatuta. Hasieran ginkana proba jokatuko da plazan eta ondoren lasterketa Iruñeko etorbidean izanen da. Promesek itzuli bat emango diote kilometro bateko zirkuituari, hasiberriek 3, kimuek 8 eta haurrek 10. Sari banaketa plazan izanen da.

## AZANZA ETA VERDUGO SUITZAN ETA URTASUN LUXENBURGON

Suitzako Itzulian dabilta Euskalteleko Gorka Verdugo eta Jorge Azanza. Asteazkeneko etapan erasoia jo eta aurrera egin zuen Jorge Azanzak, baina tropelak harrapatu zuen. Eta lehen eguneko 8,1 km-ko erlojupekoan Verdugo 5.a sailkatu zen. Bestalde, Pablo Urtasun Luxemburgoko Tourrean ari da lehian eta Egoi Martinezek eta Erbitik talde lan ederra egin zuten Dauphinén.

## Areto futbola

## Izurdiagako Futbol 8a azken txanpan

Larunbatean Karrotillosek eta Taberna Guneak 5. eta 6. postuak erabakiko dituzte

Izurdiagako Futbol 8 Txapelketa azken txanpara ailegatu da. 8 talde aritu dira, bi multzotan, eta dagoneko badakigu nor lehiatuko diren postuak erabakitzeko finaletan. Horrela, larunbatean, 17:00etan, Lakuntzako Karrotillok eta Gunea-Tabernak 5. eta 6. postua erabakitzeko partida jokatuko dute Izurdiagan. Garagarriaren 22an 3. eta 4. postua zehaztuko dute Arakilgo Rajatablak eta Irurtzango Guanlarrazek, eta garagarriaren 29an San Jorgeko Lacturale Itxasperi eta Irurtzango eta Arakilgo Isotoposek jokatuko duten final handitik aterako dira txapeladuna eta txapeladunordea.

## Mendi txirrindularitza

## Proba berria: Aralar-Beriain BTT

IGANDEAN JOKATUKO DA, 9:00ETAN UHARTE ARAKILDIK ATERATA. ARALARERRA IGO, JAITSI ETA BERIAIN IGO ETA JAISTEA DA ERRONKA (40 KM)

Altsasuko BTT zeharkaldia bukatu berritan, badugu mendi txirrindularitza edo BTT proba berria: Uharte Arakilen sortu berri den Aralar-Beriain BTT taldeak antolatutako I. Aralar-Beriain BTT mar-txa. Horretarako Uharte Arakilgo Udalaren eta hainbat babesleren laguntza izan du taldeak.

Aipatu proba ez lehiakorra da, eta, hortaz, ez da sailkapenik egingo. Antolakuntzak 200 partaideen muga jarri du. 40 km-ko ibilbidea osatu beharko dute txirrindulariek. Igandean, goizeko 9:00etan Uharte Arakilgo pilotalekutik aterata, lehenik eta behin Aralar-ko bidea hartuko dute, Aralarren barna ibilbide polita eginez. Ondoren, Uharte Arakilerara jaitsi eta Beriain izango dute helmuga. Han buelta hartu eta proba Uhartendepedituko da. Martxa lur orotako

## www.aralarberiaibtt.com

Informazio guztia. Aurretik 48 txirrindularik eman dute izena. Egunean bertan Uharte Arakilen eman daiteke izena (20 euro).

ibilgailuez lagundurik egongo da eta 20. kilometroan hornidura gunea egonen da.

Ibilbidea bukatzerakoan auzatea egongo da. Eta herrian apartakalekua, dutzak eta bizikletak garbitzeko lekua egongo da partaide guztien eskura. Proba inguru natural babestutik pasatzen denez, ingurua errespetatzeko deia egin zaie txirrindulariei.

## Sariak eta zozketa

Partaide guztiek martxako kamiseta jasoko dute opari. Horretaz aparte, dortsalen zenbakiarekin ondoko sariak zozketatuko dira: Uharte Arakilgo Gari Gutxi lan-



Altsasun euria egin zuen baina iganderako eguraldi ona iragarri dute. ANA VILCHES

da etxean asteburua, Latxa Esnea kooperatibako gaztak, Cachet jantzi sorta, Mendinueta harategiko

txistor sorta, Kaiku produktu sorta eta Uharte Arakilgo Arribicin 100 euroko txartela.



## 484 biker blai eginda Altsasun

Euria eta euria. Ez zegoen giro, baina hala ere 484 biker animatu ziren Burunda Txirrindularitza Klubeko BTT sailak antolatutako 18. Altsasu BTT edo Mendi Txirrindularitza Zeharkaldian aritzera. Aurrez 425 txirrindulari zeuden izena emanda, eta horietatik batzuk huts egin zuten. Baina egunean bertan 60 agertu ziren inskripzioa betetzeko prest eta azkenean, 484k hartu zuten irteera.

## Eguraldiagatik ibilbidean aldaketak

BTT martxako arduradun Julian Claverrek adierazi zigunez, 43 km-ko ibilbidea antolatu zuten, tartean 11 km berri, Ziordia eta Olaztiko mugan. Baina etengabe eurien ondorioz lohi asko pilatu zen eremu askotan, eta, horregatik antolakuntzak ibilbidean aldaketak egin behar izan zituen.



Ibilbidea guztian barna egin zuen euria baina gustura ibili ziren. ANA VILCHES

Horrela, aurtengo nobedadea zen Dorretxikiko igoera bertan behera geratu zen, eta Sorozarretara joateko Ulaiargo pista erabili behar izan zen. Eta Basoixin ere

aldaketak egin zituzten. Horretaz aparte, Orobera joateko Sorozarreta zubitik pasa behar izan ziren txirrindulariak eta hala egin zuten, baina buelta zubi

beretik egin behar zen eta Altzania ibaia ateratzear zegoenez, beste ibilbide bat prestatu zuen antolakuntzak.

Horrela, azkenean 35 km inguruko ibilbidea osatu behar izan zuten. Azkarrenek bi ordu baino gutxiagotan osatu zuten. Indarrak berreskuratzeko 2 hornidura gune prestatu zituzten antolatzaleek.


Txirrindulari guztiek kamiseta tekniko eta produktu loteta zituzten, eta bizikletarekin lotutako materiala zozketatu zuten. Eguraldi txarrari aurpegi ona jarrita, txirrindulariek asko gozatu zutela aitortu zuten helmugan. Eta antolakuntzak ere balorazio positiboa egin zuen. Pasa den urtean 878 biker aritu ziren eta 2006an 1.312, kopuru altuena. Normalean 1.000ren bueltan aritzen dira eta ea hurrengo urtean eguraldiak kopuru hori berreskuratzen laguntzen duen.

## Eskalada

## Iban Larrion Open Iruñako txapelduna

Larunbatean eskaladako Iruñeko Opena eta Nafarroako Blokeko Kopa jokatu ziren Iruñeko Autobus Geltoki Zaharrean muntatutako eskaladako egitura desmuntagarrian. Eskaladako 20 bide prestatu zituzten, 10 amankomunak, 5 gizonezkoendako eta beste 5 ema-

kumezkoendako. Open Iruñako gizonezkoen finala Iban Larrionek, Antxon Zabalak, Jon Sanzek, Alex Samaniegok, Ander del Riok eta Kike Ruizek jokatu zuten, eta Iban Larrion eskalatzailerik onenaren nagusitu zen, Anton Zabala eta Jon Sanzen aurretik.



## Areto futbola

## Trimanek jokalariai hartzeko probak egingo ditu

Triman Navarra Xotak jokalariai hartzeko probak egingo ditu garagarriaren 29an eta 30ean Iruñeko Anaitasuna Pabilioian. Probetan parte hartzeko izena eman behar da Trimaneko teknikarien helbidetan: imafutsalxota@hotmail.com (Imanol Arregi) eta miguelhernandezbrugue- ra@hotmail.com (Migel Hernandez).



## Mendia

# Larrañetakoekin Pirinioetara joateko aukera

Etxarri Aranazko Larrañeta Mendi Taldeak garagarriaren 29an eta 30ean Pirinioetara irteera antolatu du. Bertan bi egunetako mendi ibilaldi oso politak antolatu dituzte. Lehenik eta behin Caute-rets-etik aterata Walloneko aterpera joango dira mendizaleak garagarriaren 29an, larunbatean, eta Walloneko aterpean lo egin ondoren, hurrengo egunean, igandean, Wallonetik Panticosara.

Autobusa larunbatean goizeko 4:45ean aterako da Etxarriko Larrañeta elkartetik. Antolakuntzatik adierazi dutenez, gauza

guztiak motxilan eraman behar dira, autobusa ez baita Walloneko aterpera joango. Igandeko gosaria norberak berea eraman behar du ere, aterpean ez baitituzte ogitartekoak egiten. Eta ibilbidea bukatzerakoan autobusa hartu eta Etxarrira itzuliko dira mendizaleak.

## Izena emateko

Oraindik ere autobusan tokia dago, eta nahi duenak egin dezake bat Larrañetakoekin Pirinioetako mendi ibilaldi bikain hau egiteko. Izena emateko Pedro Gonzalez de-

tu (686 662 241)

## Sakanako Mendizaleak Lapoblación-era

Sakanako Mendizaleak mendi ibilbidea antolatu du San Juan bezperan, garagarriaren 23an. Nafarroako Lapoblación (1.245 m) mendia igotzeko asmoa dute. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Olaztitik eta geldialdiak egingo ditu Sakanako gainontzeko herrietan, mendizaleak eramateko. Izena ematea zabalik dago ostegunera arte ohiko tokietan edo 636 827 166 telefonoan.



Larrañetakoek aurreko urtean Pirinioetara egindako irteera. UTZITAKOIA

## Mendi lasterketak



Joxeja Maiza, hirugarren sakandarra, Lakuntzako plazako helmugara heltzen.



Goñi eta Unzurrunzaga, Euskal Kopako maillotarekin. Arrieta helmugaratzen.



Ura eta lohia izan ziren protagonista. Sarritan bideak errekek ziruditen.

## 10. LAKUNTZA-ARALAR MENDI LASTERKETA

# Goñi eta Olazabal azkarrenak lohi artean

Sakandarrak 10. Lakuntza-Aralar (28,5 km)

1.	Imanol Goñi	2:16:25
15.	Angel Arrieta (Uhartea)	2:30:10
17.	Ander Unzurrunzaga (Etxarri)	
	2. beteteranoa	2:31:20
20.	Jose Javier Maiza (Etx.)	2:37:50
22.	Iñaki Martiarena (Uhartea)	2:38:41
25.	Evaristo Noveleta (Irur.)	2:40:01
32.	Patxi Albeniz (Lakuntza)	2:43:36
37.	Juantxo Arregi (Altsasu)	2:45:16
51.	Alberto Razkin (Etxarri)	2:52:05
72.	Iraitz Senar (Lakuntza)	3:00:55
85.	Mikel Goikoetxea (Alts.)	3:03:59
121.	Jose Antonio Salgado (Altsasu)	3:19:22
143.	Jose Ramon Asiain (Ihabar)	3:29:49
150.	Josetxo Albizu (Irurtzun)	3:32:46
155.	Alberto Anton (Altsasu)	3:34:22
162.	Iban Verdugo (Etxarri)	3:40:07
171.	Aitor Salinas (Etxarri)	3:46:17

Euria barra-barra ari zuela abiatu zen Zabalartek antolatutako 10. Lakuntza-Aralar mendia lasterketa. 250 korrikalari zeuden izena emanda, eta 199 korrikalari hartu zuten irteera Aralarko bihotzetik barna 28,5 km eta 2308 m-ko desnibelazuen proba osatzeko prest. "Eguraldiaren aldetik dagoen panoramarekin, nahikoa" antolakuntzatik adie-

## Jaitsieran hartu zuen aurea Goñik

Imanol Goñi eta Alizia Olazabal izan ziren txapelkunak, duela bi urte bezala. 2004an Zinkak ezarritako errekorra, 2:05:14, gainditu nahi zuen Didier Zagok eta aurrera egin zuen, baina eguraldiak ezarritako zailtasunengatik ezinezkoa izan zen. Imanol Goñi eta Hassan Ait Chaou Hirimugarrietara elkarrekin igo ziren, han Zago harrapatu eta jai-

razi zuten. Eroriko ugari izan ziren eta ibilbidetik atera eta galdu zen korrikalaririk ere egon zen. Baina, zorionez, ez zen aparteko intzidentziarik egon. 20 korrikalari erretiratu egin behar izan ziren.

## Arrieta lehen sakandarra

Aurreko asteko 68 km-ko Leitzako Euskal Herriko Mendi Erronka irabaztetik zetorren Angel Arrieta izan zen azkarrena (2:30:10), baina

tsieran erritmoa topera bizkortu zuen Goñik, helmugara bakarrik helduz (2:16:25). Atzetik aurreko urteko irabazle Hassan Ait Chaou (2:17:13) eta Didier Zago (2:18:23) sartu ziren. Emakumezkoetan Alizia Olazabal izan zen azkarrena (3:02:20), Elena Calvillori minutu pasa aterata (3:03:51). Olazabalek 2011n emakumezkoen errekorra lortu zuen, 2:36:40. "Aurtenezinezkoak hobetzea. Ibilbidea oso gaizki zegoen" azaldu zuen helmugan.

aipatu proban ariztetik guztiz errekupeatu gabe zeudela nabaritu egin zitzaion Arrietari, Maizari eta Martiarenari. Ander Unzurrunzaga beteterano etxarriarra izan zen 2. sakandarra eta probako 2. beteteranoa (2:31:20), Maiza 3. sakandarra (2:37:50) eta Martiarena 4.a (2:38:41). "Bideak errekek balira bezala zeuden, dena oso irristakor... bitan edo erori naiz. Gainera, aurreko aste-ko palizarekin ez nengoen behar

## Erakusketa eta omenaldia

10. edizioa ospatzeko, antolakuntzak urte hauek guztiak eta proba honen aitzindaria izan zen Guardetxe Igoerak biltzen zituen argazki eta prentsa artikuluen bilduma erakusketa egin zuen udal-etxean. Jendeari asko gustatu zitzaion. Zabalartek omenaldia egin zien Jose Antonio Salgado korrikalari altsasuarrari eta proba honen antolakuntzan burubelarri aritu diren Josu Imazietari eta Jose Luis Lizarraga "Dorao"-ri, urte hauek biltzen dituen dossiera oparituz.

bezala, baina proba Lakuntzako zen eta etxeko probak egin behar dira" esan zigun helmugan Iñaki Martiarenak. Patxi Albeniz izan zen lehen lakuntzarra.

## Kadeteak eta juniorrak

Kategoria txikiendako 16 km-ko proba izan zen. Kadeteetan, gizonzkoetan, Pello Moreno izan zen azkarrena (1:27:39) eta, emakumezkoetan, Maialen Uriz (2:33:09). Juniorretan, gizonzkoetan, Ander Garmendiak irabazi zuen (1:26:55), eta, emakumezkoetan, Lide Leibarrek (1:53:14). Promesetan Joseba Urbano iritsi zen lehena (2:26:34).

## Frontenisa

### SAKANAKO EMAKUMEEN VI. FRONTENIS TXAPELKETA

## Ligaxkako azken jardunaldia jokoan

Asteburuan Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketako ligaxkako 9. eta azken jardunaldia dago jokoan.

## 9. Jardunaldia

### Etxarri Aranatzen, ostiralean 2. maila

20:30ean: Maria-Maider / Andrea-Izar

21:00etan: Amaiur-Irati / Uxue-Irati

### 1. maila

Mireia-Elena / Ruth-Yolanda Olaztin, larunbatean

### 2. maila

15:30ean: Izaskun-Mirentxu / Jone-Uxune

16:00etan: Marta-Maite / Ane-Uxue

Atsedean: Maider-Leonor

### 1. maila

16:30ean: Ainhoa-Txaro / Edurne-Vanasa

Kristina-Maialen / Beronika-Maite

Atsedean: Yanira-Maite

## Atletismoa

## Gomez 2.a Anuen

Larunbatean 5. Anue Bailara krosa jokatu zen Olaguen (9,75 km). 66 korrikalari aritu ziren eta Roberto Tanco izan zen garailea (38:43), Francisco Javier Gomez altsasuarraren aurretik (38:56). Juan Carlos Gomez 4.a izan zen (39:29).

## Triatloia

## Sakandarrak Zarautzen

Larunbatean Zarauzko Triatloia jokatu zen (2,9 km igeri, 82 km bizikletan eta 20 km korrikan). 400 triatleten artean Eneko Llanos (3:42:50) eta Catriona Morrison (4:09:16) izan ziren garaileak. Sakana Triatloi Taldeko Javier Borrega altsasuarra 109.a izan zen (4:26:35) eta Isidro Asurabarrena altsasuarra 187.a (4:38:32).



## Pilota

## Jaunarena Ezkurdiaren gaintetik pasa zen

Sanferminetako lau t'erdiko torneotik kanpo geratu da Joseba Ezkurdia, Jon Jaunarena leitzarra bere gaintetik pasa baitzen, arbizuarra 7 tantotan utziz. Hasieran parez pare aritu ziren bi pilotariak. Ongi hasi zen Ezkurdia. 4-6 aurreratu zen arbizuarra, sakez 3 tanto egin eta defentsan bikain aritu eta gero. Baina Jaunarenak sakea berreskuratu zuenean zeharo aldatu ziren gauzak. Sakez min handia egin zuen leitzarrek, 8 tanto lortuz, eta lasaitasun osoz aritu zen. Aldiz, Ezkurdiak dominatuta jokatu zuen hortik aurrera, eta aukerak izan zituenean, huts egin zuen. Arbizuarrak ez zuen bere maila eman.

### GAUR SAN KIRIKO PILOTA TXAPELKETA ETXARRIN

Gaur, garagarriaren 14an, ostiralean, San Kiriko Pilota Txapelketako partidak jokatu dira Etxarri Aranazko Euskalerrria pilotalekuan, 18:00etan.

### IRURTZUN ETA ARBIZU HERRIEN ARTEKO TXAPELKETA

Asteburuan Nafarroako Herrien Arteko Txapelketako finalerdien joaneko partidak jokatu dira. 2. Mailako B multzoan Zizurrek Irurtzun izango du aurkari eta Arbizuk Esteribar.

### Olaztiko San Migel txapelketako partidak

#### Gaur, ostiralean, 21:00etan

**2. maila:** Javi-Aies / Peixel-Garziandia

**1. maila:** Mazkiaran-Alustiza / Senar-Gebara

**Afizionatuak:** Santxo-Altuna / Ongay-Landiribar

**Bihar, larunbatean, 18:30ean**

#### 3. maila:

Pablo-Galu / Aitor-Katxi

Iñigo-Borja / Victor-Zornoza

Flores-Montesinos / Iñaki-Ibon

## Futbola

## Kopa Etxarrira



**Jokalariak:** Julen Iriarte, Gaizka Ocaña, Aritz Guillorme, Rodrigo Alves, Andoni Egorza, Mikel Arratibel, Jon Arenaza, Ander Cartagena, Jon Razkin, Asier Estarriaga, Iñigo Maiza, Ibai Senar, Adur Senar, Mikel Martiarena, Aitor Maiz eta Yurgi Kintana. Asier Jaka eta Aritz haurrek ere beraiekin jolastu zuten.

Larunbatean kadeteen mailako Nafarroako Kopa jokatu zen Lekunberrin. Finalerdietan Altsasu bidean uztetik zetorren Etxarri Aranatzek eta Bidezarrak jokat

tu zuten finala. Euriari aurre eginenez 3-0 irabazi zuen Etxarrik, Ibaik, Mikel Arratibelek eta Adurrek sartutako golei esker. "Uste baino errazago irabazi genuen"

azaldu digu Mario Figeroarekin batera taldea entrenatzen duen Iñaki Elvirak. "Etxarriko jende asko joan zen Lekunberrira, finalera, eta klubaren partetik eta

mutikoen partetik eskerrak eman nahi dizkiegu" gaineratu du Elvirak. Kopa behar bezala ospatzeko afaria egin zuten Etxarriko elkarre batean.

### Etxarriko Torneo Osasunarendako

Larunbatean Etxarri futbol taldeak antolatutako haurren futbol torneo jokatu zen San Donato zelaian. Nahiz eta eguraldia txarra izan, nahikoa jende hurbildu zen. Osasuna izan zen txapeldua, Real Union 2.a, Erreal 3.a, Izarra 4.a, Beasain 5.a eta Etxarri Aranatz 6.a. Errealaren kamisetak, Javi Martinezek utzitako Bayern Munich-en kamiseta, Gorka Verdugoren mailloa eta Movistar taldearen kamiseta zozketatu ziren.

## Igeriketa

## Igerilekuko sorosle izateko formazioa prest

AGORRILAREN 19TIK IRAILAREN 6RA ARTE GAUZATUKO DA IKASTAROA, ALTSASUN. IZENA EMATEA ZABALIK DAGO.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak igerilekuko sorosle izateko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa agorriaren 19tik irailaren 6ra arte gauzatuko da eta Ilargi taldeak eskainiko du, Altsasun. Ikastaroan desfibriladore semiautomatikoa erabiltzen irakatsiko da ere. Aipatu formazioa bukatutakoan sorosle lanbidean aritzeko aukera emango dien diploma jasoko dute ikastaroan aritu direnek.

Ordu-tegiari dagokionez, agorriaren 19tik irailaren 6ra arte izanen da ikastaroa, astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik 14:00etara. Ikasleek gutxienez 14 urte eta gehienez 22 izan beharko dituzte. Ikastaroaren prezioa 430 eurokoa da, eta aipatzekoa da diru



Soroslea igerilekua zaintzen.

laguntzak jasotzeko aukera izango dela. Bestalde, ikastaroa osatzen dutenek lan poltsan sartzeko aukera izango dute.

### Informaziorako eta izena emateko

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua (948 464 866 edo kiro-lak@sakana-mank.com).

## Areto futbola



Bar Koxka taldekoak.

## Bar Koxka Espainia mailako txapelketara

Afizionatuen mailako Espainiako areto futbol txapelketa jokatu da garagarriaren 22an eta 23an Ciudad Realgo Valdepeñasen. Duela bi asteburu aipatu txapelketarako sailkatzeko aurretiko jokatu zen Miranda de Ebron. Bertan Arabako Errioxako talde-

ak, Errioxakoak eta Nafarroakoak lehiatu ziren, tartean Altsasuko Bar Koxka. Altsasuarrek bikain jokatu zuten eta Mirandako txapelketa irabaztea lortu zuten, Valdepeñasen jokatu den Espainiako Areto Futbol Txapelketarako sailkatuz. Zorionak!

## Bazkide zozketa



### GARAGARRILEKO SARIAK:

1- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA  
2- EKAINBERRIRA JOATEKO SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA

3- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA  
4- URBASA ABENTURA SARRERA 1 + 612 EURO LIBURUA

## Non erabili

## Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

### JM AGIRRE HARATEGIA LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### DANTZALEKU TABERNA

**ALTSASU**  
Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

### KAXETA

**ETXARRI**  
% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

### KATE INFORMATIKA

**IRURTZUN**  
% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

### BAIZA MOTOR

**ETXARRI**  
Eskaintza bereziak.

### KALUXA TABERNA

**URDIAN**  
Menu edo plater konbinatuekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin

kafea edo kopa doan.

### CITROËN SAN MIGUEL

**ALTSASU**  
Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan % 20ko deskontua.

### IRUBIDE JATETXEA

**ALTSASU**  
Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.



# kultura >>

**NAZABALEN AKUARELA BILBON:** Euskal Akuarelisten Elkarteak bere 200. erakusketan Bizkaiko Foru Aldundiaren Bilboko Ondare aretoan dago ikusgai. 76 egileren

beste horrenbeste lan ikusgai daude eta horien artean dago Itziar Nazabalen Xauen ilunpean akuarela. 18ra arte egonen da.

## Pintzela eta paleta Olazti irudikatzen

**Domekan, 9:00etatik aurrera, VI. pintura azkarreko lehiaketa izanen da**

Olatzagutia koadro batean islatzea izanen da askoren egitekoa etzi. Seigarren aldiz Olatzagutian margolariak goiz eta arratsaldearen zati bat izanen dute pintzelak eta koloreak mihise gainean dantzatzeko, edozein teknikarekin.

Haur, gazte eta helduen mailatan jokatu da lehiaketa. Hurrek herenegun arte zuten izena emateko epea zabalik. Gazte eta helduen mailako lehiaketan parte hartzeko asmoa dutenek gaur (948



562 446 telefonoa edo [kultura@olazti.com](mailto:kultura@olazti.com) e-posta, bulego ordutegian) edo domekan 9:00ak baino lehen

eman dezakete izena.

Parte-hartzaile gazte eta helduak euren lan euskarrirei 8:00etatik 9:00etara kultur etxean zigitua jarri behar diete eta ondoren lanetan has litezke. Lanak 17:00ak eta 18:00ak artean aurkeztu beharko dituzte. Sarituak 18:30erako jakinen dira. Hurren mailako parte-hartzaileak kultur etxetik pasa beharko dute 9:00etatik 10:00etara lehiaketako euskarria eskuratuzera.

### Erakusketa

Ikasturtean zehar pintura taileurrean parte hartu duten 9 emakumeen sormen lanak ikusgai jarriko dituzte bihar eta etzi kultur etxean. Hainbat teknikerekin ugari lantzen dituzten koadroak sortu dituzte. Larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta domekan, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

## di-da >>

### MUSIKA

#### QUEEN-EN DOINUAK OLAZTIKO PARKEAN

Gaur, ostirala, 22:30ean Olatzagutiko Sutegi parkean

Liquid Queen Trio Josetxo Sesmak (baxua), Josu Erbitik (bateria) eta Pablo Liquidok (ahotsa eta gitarra) osatzen dute. Ingelesen zale porrokatuak hirurak, Pablo Liquidok Queen-en bertsio disko bat grabatu ondoren sortu zen hirukoa, kantuak zuzenean eskaintzeko. Queen-en omenezko tributu taldea, beraz, gaur gauetan Olatzagutian entzungai izanen dena.

#### ETXARRI ARANAZKO ABESBATZA LEHIAKETETARA BUELTRAN

San Vicente de la Barquerako XLVI. marinel abestien lehiaketan parte hartuko du Etxarri Aranazko abesbatzak. Garilaren 6an eta 7an izanen da. 2007an Ejea de los Caba-

lloseta Burgosko lehiaketetan parte hartu ondoren abesbatza etxarriarra ez da gehiago lehiatu, Euskal Herrian eta atzerrian kontzertuak eskaini eta beste erakundeekin elkarlanean aritu izan da.

+ [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

### LEHIAKETA

#### ETXARRIN FESTAK IRA-GARTZEKO KARTEL BILA

Aurtengo festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Etxarri Aranazko Udako Kultura Sailak. Horregatik, languztietan *Etxarri Aranaz Festak 2013* leloa agertu beharko da. A3ko tamainan aurkeztu beharko dira lanak, edozein teknika erabiltza ere, baina originalak denak ere. Bi maila izanen ditu lehiaketak: 12 eta 16 urte bitartekoa eta 16 urte gorakoena. Parte-hartzaileek euren lanak garilaren 5era arte udaltxean aurkezteko aukera izanen dute. Gazteen mailan 100 euroko saria izanen da, helduen mailan, berriz, 300ekoa. Guztiek ere plika sistema erabili beharko dute lana aurkezterakoan.

## Dantzara!

**Larunbatean, 18:00etan, Hiriberriko plazan**

Otsailaren 9tik maiatza akaberara arte dozena bat arakildarrek dantza ikastaroan parte hartu dute. Beltzane Obanos irakaslearekin ikasitakoak erakutsi nahi dute bihar. Baina ez dute ohiko erakustaldia egingen. Obanos Saltoka taldeko kidea ere badenez, bere kideak Hiriberrira ekarriko ditu.

Saltokakoe eta plazan biltzen diren guztiak Euskal Herriko eta kanpoko betiko dantzak eta berriak ikusi, ikasi eta dantzatzeko aukera izanen dute. Dantzaldi eta dantza pikoa izanen da, beraz, iragarritakoa.

Preziazten den edozein ospakizun moduan, dantzaldiaren ondoren, 21:00etan, afaria izanen da Txitera elkartean. Afarira joateko izen ematea gaur 15:00ak arte dago zabalik. Hots egin 948 500 101 telefonora edo idatzi [ayuntamiento@arakil.infolocal.org](mailto:ayuntamiento@arakil.infolocal.org) helbidera.

### Dantza ikasleen saioa



**Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean**

Iñaki Agirre Larraza irakaslearen esanetara Altsasuko Musika eta dantza eskolanari diren dantzari ikasitakoak erakutsiko dute bihar. Ikasturtean ikasitakoak hainbat herrietan erakutsi dute eta erakutsiko dute. Baina bihar, eszenatokia ezberdina izanen da, Iortia kultur gunean ariko baitira haur eta gazteak.

## bazterretik

Ana Senar Lasa

### Diseinuaren balioaz

**Bat:** "Krisi garaian irudimena beharrezkoagoa da, salbatzen zaituen puntua da hain zuzen ere. Dena ongi doanean pixka bat erlaxatu eta ez hain ongi diseinatu, dena onartzen eta dena saltzen delako. Krisialdian, ordea, jendea zorrotzagoa da eta produktuek prezio merkeagoa edo aukera gehiago eskaini behar dituzte. Eta, horretarako, diseinua ezinbestekoa da. Ez dezagun nahastu diseinua eta azaleko dekorazioa. Enpresari argiekulertu dute, eta talentuak kontratatzen ari dira."

**Bi:** "Gizakiak ez ditu beharri lotutako objektuak bakarrik sortzen; beharrezkoak diren baka-rrak jatea eta lo egitea dira eta. Gizakiak hobetzea eta garatzea beharra du, eta hor ezinbestekoa da diseinua. Beraz, kultura eta estetika ere beharrezkoak dira. Sorkuntza-akzio hori da, hain zuzen ere, beste animalien gaituen bereizten gaituena. Haiek guk egiten dugun gauza bera egiten dute, hezi eta estetikaz gozatu ez ezik. Hori gabe, gizakia ez litzateke gizaki izango; beraz bai, diseinua behar dugu, edo leizera itzuliko gara."

**Hiru:** "Egun, jasagarritasun irizpideak ez dituen diseinatzailea edo enpresa delitugiletzat hartu behar-



ko genuke. Honez gero, ez dago aitzakiarik; badakigu planeta ez suntsitzea gure eskuetan dagoela, ezin dugu hain berekoiak izan. Diseinua ekologikoa izangoda, edo ez da izango. Diseinugintzan gero eta garrantzi gehiago emango zaie birziklatzea, jasagarritasuna, ergonomia, ekoizpen ekologikoa eta antzeko kontzeptuei."

**Lau:** "Jendeari eguneroko bizitzan inguratzeko gaituen eta hobeto bizitzeko laguntzen gaituen oro norbaitek diseinatu izan dela erakusten zaionean, orduan, diseinuarekin adiskidetu da. Ezagutzeko maitatzea da." **Hau:** "Jendeari eguneroko bizitzan inguratzeko gaituen eta hobeto bizitzeko laguntzen gaituen oro norbaitek diseinatu izan dela erakusten zaionean, orduan, diseinuarekin adiskidetu da. Ezagutzeko maitatzea da." **Hau:** "Jendeari eguneroko bizitzan inguratzeko gaituen eta hobeto bizitzeko laguntzen gaituen oro norbaitek diseinatu izan dela erakusten zaionean, orduan, diseinuarekin adiskidetu da. Ezagutzeko maitatzea da." **Hau:** "Jendeari eguneroko bizitzan inguratzeko gaituen eta hobeto bizitzeko laguntzen gaituen oro norbaitek diseinatu izan dela erakusten zaionean, orduan, diseinuarekin adiskidetu da. Ezagutzeko maitatzea da."

**Ekainak 18a** baino lehen bidali

## Udaberriko argazki lehiaketa

**FLORES**  
arkitektura

948 563 317  
[arkiflores@gmail.es](mailto:arkiflores@gmail.es)

Iortia plaza 1-1  
ALTSASU

[www.arquitecturajavierflores.com](http://www.arquitecturajavierflores.com)

**>> Saria:** **SAVÁN** informatikak eskaintako **liburu digitala**

**ADI, oinarri berriak:**

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel, eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan beharko dira.** Argazkiari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri beharko dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidaltako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatu, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak ekainaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira [maketazioa@guaixe.net](mailto:maketazioa@guaixe.net) helbidera. Argazkiak [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net) webgunean jarriko dira ikusgai.



## Etxarri euskarazko irakurle taldea sortzeko deia

Hilabetea bukatu aurretik izena eman behar da liburutegian, irailean martxan jartzeko



**E**txarri Aranazko Victoriano Hui-zi udal liburutegiko batzordeak euskarazko irakurle taldea sortzeko deialdia egin du. Halako taldeetan irakurtzea gustuko duten eta gero irakurritakoaren gainean beste pertsona batzuekin hitz egin nahi dutenak biltzen dira. Deialdia, beraz, euskaraz irakurtzeko ohitura eta trebetasuna indartu nahi dutenendako da, "ez da irakurle amorratu edo trebatua izan behar talde honetako kide izateko".

Azaldu dutenez, bi hilean behin etxean irakurtzeko euskarazko liburu bat aukeratu da (liburua liburutegiak utzitakoa izanen da) eta gero, adostutako egunean, taldea liburu komentatzera elkartuko da. Aingeru Mikeorengidaritzapean liburu gaiak, pertsonaiak, estiloa, egilea, iritziak, eta abar izanen dituzte hizpide. Mikeok ikasurteko irakurketa-plana egingen du, eta berak dinamizatuko ditu bilerak, eta taldekideen partaidetza sustatzen ahalegingo du.

## Makina berezia, aitona pozteko

**A**ndra Mari ikastolako DBHko 1. mailako ikasleak aktore bihurtuko dira bihar, 22:00etan. Etxarri Aranazko kultur etxean *Denboraren makina* antzezlaneko paperak jokatu dituzte 25 ikasleak. Haiek sortutako antzezlanak da taularatuko dutena. Ilobek, aitona pozteko, denboraren makina sortuko dute eta handik makina bat pertsonaia historiko agertuko dira. Haiei buruz zertxobait ikasteko aukera ematen du antzezlanak, beraz. Ilbeltzean hasi ziren entseguen eta larunbatean, ikastolaren egunean, mustu zuten.

# Arbizuren suntsipenaren memoria gogoratzeko, herri-kultura

Historia liburuxka, ipuina eta elektro-sinfonia argitaratu dituzte eta erakusketa egingen da

**1**813ko garagarriaren 23an Napoleonen tropek Arbizuko 45 etxe, zeudenen erdia, erre zituzten. Efemeridea kontuan izanda, herri ekimena sortu da Arbizun, helburu bikoitza duena: gertaera izugarri haiek gogoraraztea; orduko arbizuarrek herri gisa bizirik irauteko eta berreraikitze nahia, elkarlana, gogoraraztea. Horregatik, urtean zehar hainbat ekimen egin dituzte. Gertakarien inguruan sortutako kultur uzta aurkeztu dute.

### Sua, elektro-sinfonia

Duela bi mendeko gertakarietan oinarrituta Pello Reparaz musikariak konposatu du obra. Musikaz lagunduta kontatzen du historia, hilaren 22an antzeztuko den ikuskizun baten soinua banda denak. *Sua, berpiztearen elektro-sinfonia* sarrera eta lau mugimendu ditu.

**Sarreran**, ikuskizunean uneoro gertatuko dena azalduko du. Ikuskizuna 1. mugimenduari hasiko da, *Ihesa*. Napoleonen tropen etorrera eta arbizuarren basorako ihesa islatzen du. Danborrekin eta metalezko tresnekin aire martzialak nabarmendu ditu egileak, herria irudikatzen duen piano jostari batekin kontrajarria.

**2. mugimenduan**, *Sua*, herriarrak basoan daude eta frantziarrak herrian, suntsitzen. "Mugimendu tentsua da, iluna berez" argitu du Vendettako musikariak. Metalek, biolinak eta bestelako tresnek azpimarratua dator pasarteak, arbizuarrek bizitako dramaren adierazle.

**3. mugimendua**, *Dolua*, arbizuarren sentimendu ilun hori islatzen da. Erretako etxe bakoitzeko emakume bana aterako da, kandela bana eskuan, "omenaldia egingen zaie". Ondoa jota dagoen herriaren isla den musika ilunari zurrerik arbizuarren hileak lastuko dituen 45 etxeen izenak erreztatzen dira pasarte horretan,



### Sua: fitxa




**Konposizioa, nahasketa, ekoizpena eta moldaketak:** Pello Reparaz  
**Musikariak:** Amaia Razkin (biolina), Oihana Razkin (ahotsa), Xabier Garziandia (ahotsa), Ane Berastegi (ahotsa), Migel Anjel Reparaz (ahotsa), Ruben Anton (tronpeta), Jon Iriarte (perkusioa), Ander Garzia (perkusioa), Joanes Satrustegi (perkusioa), Nekane Garzia (perkusioa), Mikel Reparaz (narratzailea) eta Pello Reparaz (tronboia, pianoa, bateria, gitarra, sintetizatzailea eta programazioak).

dramatismoa areagotuz.

**4. mugimendua**, *Berpiztea*, herriarren itzulera, batasuna, elkartasuna eta herriaren berreraikitzea irudikatzen da, "kutsu sentimental hori bai musikalki bai ikuskizunean islatuz". Horretarako orduko arbizuarren lan epikoa azpimarratzen duen crescendo bat erabili du egileak. Haurrek hasi eta helduek segituz, herriak behin eta berriz errepikatuko duten leloa kantatuz: *Herriko eskubekin sortutako denak sekula santan galduko biziya. Denon ihesakekarriko inderra zerotik hasteko sortzen herriya*. Danbor doinuen determinazio hori nabarmen dute.

Pello Reparazek azaldu duenez,

### Historia liburuxka



Xabier Reparaz Estramiana historialariaren dokumentazio lanaren fruitu da. Bibliografiarekin batera Arbizuko Udaleko artxiboa izan da edan duen iturria. Artxiboan garai hartako nahikoa dokumentu daude, "nahikoa zehatzak kasu batzuetan" Reparazek zehaztu duenez. Ikerketa horren emaitzak jasotzen ditu liburuxkak. Garai hartako historia testuingurua, Arbizuko garaiko bizimodua, zer erre zen, zergatik erre zen, ahoz aho transmititutako kondairak eta istorioak ere jasotzen ditu. Liburuxkan jasotako datu guztiak hilaren 22an erakusketa egingen da Arbizun.

sinfoniak kutsu elektronikoa dauka. "Ikuskizunaren zatiezberdinetan hainbat gauza lantzen dira. Garai bateko kontuak badira ere, zati artistikoari dagokionez nahiko aktuala da". Musikarekin batera antzeztuko duen ikuskizunaz musikariak azaldu du indar handikoa dela. Hilaren 22an pertsonen

### Ipuina



Castillo Suarezek idatzi du Lorentxa ipuina. Reparazek ikerketan dago tropa frantsesengandik ihesi basoan ezkutatu ziren arbizuarren artean, batek erditu egin zuela eta Lizarragabengoa bataiatu zutena. Eta gertaera hori abiapuntu hartuta ondu du Suarezek ipuina. Soldadu frantziar bat agertzen dela, besterik ez du aurreratu idazleak. Egileak aitortu duenez, jaso duen enkargu zailena izan da, baina "ilusioarekin egiten diren eskareri ezin zaie ezetz esan".

Testuari irudia Cristina Fernandezek jarri dio eta "ohorea" izan dela adierazi du. Ilustratzaileak gertakari historiko batean oinarrituta den ipuin bat izatean zailtasunak opatu ditu: "ordukoak islatu behar baitzen". Baina arlo horretan Reparazek laguntza jaso du, esaterako, eliza ezberdina zelako. Teknikari dagokionez, akuarela eta tinta erabili ditu, gero ordenagailu bidezko ikutuak eman eta lana ontzeko. Fernandezek azaldu duenez, bizitoki hutsa baino zerbait gehiago da. Elkarlanean aurrera egiteko balio duela gaineratu zuen, horren adibide gisa herri ekimena bera jarri. Elkarlan hori ipuineko azken marrazkian islatu nahi izan du. Liburuak 8 eurotan egonen da salgai.

parte hartuko dute antzezpenean.

Ikuskizuna 4. mugimenduari bukatuko da. Baina diskoaren akaberan agertzen den gehigarria, *Ospakizunaren koda*, Maria Lonbreen zaldian zoramena, ez da ikuskizunarekin bat etortzen. Diskoa eta historia liburuxka 13 eurotan elkarrekin salduko dira.



**ALTSASUKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA**  
**KURTSO AMAIERAKO DANTZA EMANALDIA**  
Ekainak 15 · 20:00



<b>G</b>	<b>asteko &gt;&gt; : eguraldia</b>							<b>: temperatura&gt;&gt;</b>			<b>: ilargiaren aldia&gt;&gt;</b>				
	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>	ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete	
								Irurtzun	28	10	101.7				
	euria: 25%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 63%	euria: 88%	euria: 60%	euria: 33%	Etxarri A.	32.1	9.9	105.8	16	23	30	8
	Min: 10 Max: 22	Min: 11 Max: 21	Min: 12 Max: 27	Min: 14 Max: 17	Min: 9 Max: 19	Min: 9 Max: 16	Min: 9 Max: 18	Altsasu	24	10.5	91.1				
								Aralar	23.2	4.9	104				
								Urbasa	22	8	106.9				

**Acrycolor SISTEMA BERRIA** **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

**EGOKI** VENTANAS PVC LEIHOAK Tel: 948 563 253 Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

**Zure herriko festen programa diseinatu eta inprimatzen dugu**

**%5eko deskontua bazkide diren udaletxeei**

**Eskatu aurrekontua 948 564 275 / 948 562 107**

# >> 11 galdera

**Adur Ramirez de Alda**

Sakaranga Txarangako kidea

Testua: Maider Betelu Ganboa



## 1. Noiz sortu da Sakaranga Txaranga?

Duela lau zapabost hilabete hasi ginen entseatzin. Altsasuko Karbonillako festetarako lehenengo kontzertua hitzartuta genuen eta ikusi genuen izena jarri beharra genuela bai ala bai, eta hori izan zen prozesu zailena, izena jartze-arena. Bakoitzak izen bat proposatu, bozkatu... bi izen gelditu ziren eta Sakaranga Txaranga gelditu zen. Sakanakoak garelara adierazten du eta Sakaranga txarangarekin erimaten du. Aitak esan zidan izen hori, nik botanuen eta justu hori aterazen.

## 2. Lehendik beste txaranga batzuetan aritu izan zarete?

Ni ez baina taldekide batzuk beste txaranga batzuetatik datoz. Batzuk Impresentables txaranga zuten, esaterako. Sakaranga txaranga osatzen dugu beterrano horiek gehi beraiekin hasi garen berriek. 15 kide gara eta soilik 2 neska daude. Gehienak Altsasukoak gara, gero Etxarriko pare bat daude, Bakaikukoak ere, Irurtzun aldeko beste bat eta hola. Altsasuko musika eskolak uzten digun lokal handi batean entseatzin dugu. Perkusioa dugu, hau da, bonboa, txapak eta kaja, saxofoiak, tronpetak, tronboiak, klarinete bat eta bonbardinoa.

## 3. Altsasuko Karbonillan debutatu zenuten. Zer moduz?

Eguraldiak ez zuen asko lagundu baina gustura ibili ginen.

## 4. Zuen erreperitorioan zer entzun daiteke?

Denetatik, txaranga batean beti entzuten direnak eta kanta berriak

ere: mexikana famatu horiek, *Sigo siendo el Rey* esaterako, *Lesakako ihauteriak*, *30 años*, *Barricadaren No hay tregua*, *Abbaren kantuen moldaketak*, *No te vayas de Navarra* pasodoblea ere jo genuen Karbonillan... Publikoan denetatik dago eta garrantzitsuena guztiei gustatzea da eta jende guztia gustatu egotea gure musikarekin. Abesti mota ezberdinak txandakatu jakin beharko dugu eta jendeak eskatzen dizkigun kantak prestatu beharko ditugu.

## 5. Udako festak ate joka daude. Emanaldirik lotu duzue?

Iturmendiko festetan jotzeko deitu ziguten eta baietz esan diegu. Eta gero Altsasuko jaietan ere ariko gara, hain juxtu Altsasuko peñaren 40. urtemugarekin bat egiten du gure emanaldiak. Guztioi musika jotzea gustatzen zaigu. Zaletasuna duglako egiten dugu, baina egin ahal dizkiguten proposamenei zabalik gaude.

## 6. Txarangan jotzen duen batendako non jotzea litzateke bere ametsa?

Niretako herrian jotzea da, eta herri guztiak txaranga horierreferentia izatea, hau da, lotura polita egotea herriaren eta txarangen artean. Hori litzateke onena. Beste batek esandezake Iruñeko zezenketa batean jotzea... denetatik.

## 7. Sakandarrak txaranga zaleak gara?

Nik uste dut baietz. Gure koadrilari festetan gehien gustatzen zaiguna txarangaekin joatea da. Eta Etxarri ere giro polita ikusten dut festetan. Igual Erribera aldean zaletasun handiagoa dute,

baina guri ere gustatzen zaigu.

## 8. Kriaren eragina nabaritzen da kontratazioak egiterakoan?

Txaranga bat garestia da. Esaterako, Ajolabaiko peñan, Altsasun, txaranga kontratatu ahal izateko dirua lortzeko lan asko egin behar izan genuen: dirua jarri, gaztaren jokia eta beste antolatut... Txaranga kontratatzeak lana eskatzen du, baina merezi duela uste dut.

## 9. Festetan lanean. Txaranga joleena lan gogorra da? Edo zuek ere ongi pasatzen duzue?

Guztiarendako tokia dago. Ezin zara pasatu bestela barregarri geratzen zara. Baina ongi pasatzen dugu. Nik tronboia jotzen dut; oraindik ez zait tokatu halakopaliza handirik hartzea, baina jende-ari entzuten diot ezpaineak asko sufritzen dutela. Bereziki tenperatura aldaketekin, ezpainak zauritu edo ebakitzea gerta daiteke. Kontua da tenperatura kontserbatzen jakitea, bokilla eta halako gauzak, eta berotzea ongi beti.

## 10. Nork markatzen du eritmoa txarangan, bonboak?

Bai, bonboa garrantzitsua da. Bonboak abiadura markatzen du eta zuk segitzen diozu. Bonboa jotzeak badauka bere meritua. Askok nekatzen dira, baina gure bonbojolea handia eta indartsua da, iraupen luzeakoa.

## 11. Zuekin harremanetan jartzeko zer egin behar da?

Mezibat bidali [contacto@sakaranga.com](mailto:contacto@sakaranga.com) postara edo facebooken eta twitterren sartu. Edo guri zuzenean esan.

## Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?



**Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan Guaixearen asteroko azala**

Hilabete akaberan Guaixe egon den komertzio baten izena bidali

[zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net) helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

**Saria** Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea